

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2022-AZAROA-444.ZENBAKIA

KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

GOZATEGI TALDEAK 30 URTE

GIZALDIZ GOZALDI



PUBLIZITATEA

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristalergiaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.



ARDORA
arraindegia

Eusko Gudari, 4
© 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52
ardoraarraindegia@yahoo.com
ORIO

arkaitz taberna
... orio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terniza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

auto Azkue

Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIA



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

fontana
iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak



Zerbitzu teknikoa
24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoek instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua



Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROTEGIA OROKORREAN



KARKARA 444

2022-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Onintza Lete Arrieta
Sukaldeko egutegia
- 6 **Hitz tantak** Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Esti Markez
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Aiora
Larrañaga Solaberrieta
Desfilea baino askoz gehiago
- 10 **Gutunak**
- 13 **Herrian galdezka**
Zer iruditzen zaizu Gau Beltza ospatzea?
- 14 **Erreportajea** Onintza Lete Arrieta
Odolekoak odola behar dutenei lagunduz
- 21 **Moila bazterretik** Egoitz
Dorronsoro
Hitzetatik ekintzetara
- 22 **Akuilua hartuta** Arantxa Iglesias
Egunero da Azaroaren 25a
- 25 **Ikasleak idazle** Zaragueta Herri
Eskola
- 26 **Elkarrizketa** Aitziber Arzallus
Asier Gozategi: "Urteek erakutsi digute momentua dastatu egin behar dela"
- 32 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Inazio Sarasua, inbentorea
- 36 **Elkarrizketa** Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Mikel Rezabal: "Aiarren ohiturak asko aldatu dira eta eragina izan du harategian"
- 40 **Osasuna** Sonia Ziani
Elkar lagunduz, korrika
- 41 **Euskara** Jabier Zabaleta
No entiendo
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Amaia Iribar

KARKARA

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus



Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Lete Arrieta
Aitziber Arzallus

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Egoitz Dorronsoro
Arantxa Iglesias
Iñaki Iturain
Sonia Ziani
Jabier Zabaleta
Amaia Iribar

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAIKO
UDALA

PUBLIZITATEA



KAIOA

 [kaioa_denda](#)
 www.kaioa.es

Gabon

TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



%100 etxean egina

PIZZERIA KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



KATU HORIA


albatzaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**

ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA



Kolon Txiki

edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44



Sagasti LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Roberto Sagasti


Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com



kutixi kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Sukaldeko egutegia



ONINTZA LETE ARRIETA

Kalean nenbilen batean, ezagun batek esan zidan KARKARAN lantzeko moduko gai polit bat zeukala niretzat. Antza, Orioko odol emaleen elkarteko presidente 50 urtez izan zen andreak alabari pasatu behar zion lekukoa. Alegia, Maria Cristina Atorrasagastik, Karmele Olideni. Zenbaki borobil horiekin eta istorioarekin txundituta, lantaldean proposatu, eta gustura hartu nuen gaia.

Kafe baten bueltan elkartu ginen ama-alabak, Juan Jose Oliden – bataren senarra eta bestearen aita– eta laurok. Umorez gehienez, hunkituta momenturen batean, kontatu zizkidaten urte hauetan egindako lanak eta bizitako kontuak.

Handik egun batzuetara, elkartu nintzen odola 120 alditik gora eman duen Juanito San Sebastian oriotarrarekin, eta hark ere erantzun zizkidan galderak.

Azkenik, Aiara ere igo nintzen, eta baita hitz egin ere Fermin Zuloaga arduradunarekin eta Tamara Zuloaga alabarekin.

Hasi nintzen idazten, eta kazetarion gaitzarekin topo egin nuen: inork ez zidan aparteko bitxikeriarik kontatu, ez aparteko titularrik eman, ez aparteko sakrifizioez hitz egin. Beraz, zer kontatu behar nuen?

Emaitzei eta datuei garrantziarik ez ematea erabakita neukan, neu behintzat ez naizelako gai erabakitzekeo zenbat odol den asko, eta zenbat gutxi. Ez ote da tanta bakoitza garrantzitsua?...

Eta hori pentsatzen hasi orduko konturatu nintzen hortxe neukala erantzuna: Maria Cristinak, Pilarrek, Juan Josek eta Ferminak ez zeukatela sekulako bitxikeriak kontatu beharrik, ezta lan sakon eta konplexu baten berri eman beharrik ere. Beraien lana egunerokoa izan ez arren, eta kanpotik begiratuta sekulako lan nekeza izan ez arren, egiten zutela egin beharrekoa bizitzak salbatzeko: herritarrei abisatu, lokala ireki, merienda prestatu, lokala garbitu, eta hala, hilabetez hilabete eta urtez urte, hutsik egin gabe, aiarrek hiru hamarkadaz, eta oriotarrek, berriz, bost hamarkadaz.

Orain, bi bikoteek sentitu dute lekukoa pasatzeko unea iritsi dela. Oriotarrak pozarren dira, alabak jarraituko diolako beraiek hasitako bideari. Aiarrak, berriz, ordezko bila dabilta. Zorterik onena opa diet denei baina, batez ere, aiarrei, idazten ari den hau bezalako asko baldin badago bazterretan, ez dutelako erraza izango konpromisoa hartuko duenik aurkitzen.

Eta orain banoa kaxoian begiratzera, ea aurkitzen dudan orain pare bat hamarkada odol emaleen elkartekoek eman zidaten fitxa; abenduaren 1a dagoeneko gorriz borobildu dut-eta sukaldeko egutegian... ■■■

**"NEU BEHINTZAT
EZ NAIZ GAI
ERABAKITZEKO ZENBAT
ODOL DEN ASKO,
ETA ZENBAT GUTXI"**

Esti Markez

TESTUA ETA ARGAZKIA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Esti Markezek bakarkako ibilbidea abiatu du *Hitzeekin jolasean* diskoarekin. Gainera, azaroaren 19an kontzertua eskainiko du Aian.

Nola definituko zenuke argitaratu berri duzun *Hitzeekin jolasean* lana?

Disko freskoa da, alaitasuna eta gaztetasuna transmititzen dituena, eta pop, rock eta folk estiloak uztartzen dituena. Ezin da esan bat edo bestea denik; badago abesti bat folk estilokoa dena, baina gainontzekoak nahiko poperoak dira.

Azken hilabeteetan abestiak argitaratzen joan zara. Horiek ere biltzen al ditu diskoak?

Diskoa hamar abestiz osatuta dago, eta tartean daude azken hilabeteetan single gisa argitaratu ditudan bi abestiak, bai. Bi abesti horiek aldeztu aurretik argitaratu nituen bideokliparekin, nahi nuelako nire lanaren pintzelada batzuk erakutsi, publikoak diskoa nolakoa izango zen ezagutu zezan. Publikoaren feedbacka ikusi nahi nuen.

Bakarkako zure lehen diskoa da. Lan asko eskatu al dizu?

Lan ikaragarria izan da. Hasieratik argi nuen autoedizioa izatea nahi nuela. Diskoa mimo handiz landu dut. Ez zait gustatzen gauzak presaka egitea, eta nire lehen bakarkako lana sortzeko behar nuen denbora hartu dut, presarik gabe. Une batzuetan galduta ere sentitu naiz, baina zorionez, baditut inguruan esperientzia handia duten musikariak, tartean nire aita, eta euren babesa garrantzitsua izan da lana osatzerakoan. Zortzi hilabetez aritu naiz diskoan lanean, eta abestiak sortzetik argitaratu bitarteko bidea luzea eta konplexua izan da.

Musika arloan nahi den hori lortzea oso zaila da, baina, horrez gain, diseinu, komunikazio eta promozio lanak ere oso garrantzitsuak dira. Aitortu behar dut nahiko zorrotza naizela neure buruarekin; saiatzen naiz perfekzioa lortzen, batzuetan horrekin itsutzera iritsi arte, baina azkenean, emaitza bikaina izan da. Oso gustura nago.

Bakarleri gisa argitaratu duzu diskoa, zeure izenean. Hala ere, aipatu duzu esperientzia handiko musikariak alboan izan dituzula. Horien ekarpena garrantzitsua izan al da?

Nik ezingo nukeen disko hau argitaratu beraien ekarpenik gabe: Josu Ervitik grabatu du bateria; Danaek jo ditu baxua eta pianoa, eta ahotsak ere grabatu ditu; eta Garazi Esnaolak pianoa grabatu du abesti batean. Horrez gain, Iker Laurobak lagundu dit diskoa ekoizten. Gaitasun handia du gitarrak sortutako abesti bat entzuten duenean sentitzeko abestiaren emaitza nolakoa izan litekeen, eta bere ekarpena oso garrantzitsua izan da. Abestien hitzei dagokionez, bi letra Alaia Martinenak dira, eta beste bat Jon Martinena da.

Gazte batentzat ez da izango erraza halako ibilbidea abiatzea.

Sektorea ezagutzen duen jenderik inguruan ez baduzu, oso zaila da artista hasiberri batentzat diskoa ateratzea, kontzertuak lortzea, telebistan agertzeko aukera edukitzea edo irratian zure abestiak jartzea. Nik lehen lana aitarekin grabatu nuen, eta horrek ate asko ireki dizkit. Disko honetarako kontaktu gehiago nituen. Beraz, ez ditut izan artista hasiberri batek izan ditzakeen bezainbeste zailtasun. Hala ere, kalitatezko lana egiteko diru asko behar da.

Musikatik bizi nahi zenuke?

Nik osasungintzan lan egiten dut, eta egia da arlo hori ere asko gustatzen zaidala, baina musikatik bizi ahal izatea da nire ametsa, bai, nahiz eta badakidan Euskal Herrian oso zaila dela hori. Oso gutxi bizi daitezke kontzertuetatik, eta horregatik, musikari askok eskolak edo hitzaldiak ematen dituzte astean zehar.

Gaur-gaurkoz, nire aitarekin diskoa argitaratu nuenetik, lanaldi erdiz lan egiten dut ospitalean, eta gainontzekoa musikara dedikatzen dut. Musikariak Ikastetxeetan izena duen zirkuitu baten barruan hitzaldiak ematen ditut, eta orain, beste proiektu bat aurkeztu dut Iker Laurobarekin batera. Bidea zaila da, baina ari naiz urratsak ematen, eta oso pozik nago. Denborak esango du. ■■■■



Desfilea baino askoz gehiago

ARGAZKIA ETA TESTUA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Urriaren 15ean, moda diseinuak hartu zuen Orioko Herriko Plaza, Gure Altxorrek ekimenaren bitartez. Orioko eta inguruko herrietako hainbat diseinatzaileren lana balioan jartzea eta herritarren artean ezagutaraztea zuen helburu Rosa Atorrasagastik eta Nikolas Iriondok antolatutako ekimenak, baina hori baino askoz gehiago izan zen. Lau marka bildu zituzten Gure Altxorrek egitasmoaren lehenengo edizioan: Lama The Lab (Goiuri Unanue, Estela Atorrasagasti eta Maria Arruti), Darrk (Markel Velez), Ione Iruretagoiena, Ural (Jon Alkain) eta Soia Bridal (Goiuri Unanue). Diseinatzaile gazteek erakutsi zuten sormena eta diseinua gizarteak ezarritako estereotipoen gainetik daudela. Inolaz ere, herritarren begirada zabaltzeko haize bolada freskoa izan zen desfilea. ■■■





Eskerrik asko

JUANITO ORELLAREN ETXEOAK

Ez dugu ez berehalakoan ahaztuko, ez jasotako indar-keinu bakoitza, ezta sentitutako herri-babesa ere.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

Arantzazura eskurtsioa

ORIOKO ZAHARREN BABESLEKUA

Azaroaren 10erako Arantzazura eskurtsioa antolatu dugu gure bazkideentzat. Honako egitaraua prestatu dugu: 09:15ean abiatuko gara Oriotik; Arantzazura iristean, hamaiketako egingo dugu aurrena, eta meza entzungo dugu gero; eta horren ostean, Azpeitira joango gara autobusez, hango Kiruri jatetxean bazkaltzeko. Bazkaria 14:30ak aldera izango dela aurreikusten dugu.

Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa

ORIOKO ATLETISMO TALDEA

Azaroaren 13an izango da aurtengo Behobia-Donostia lasterketa, eta aurten ere Behobiara joateko autobusa antolatu dugu Orioko Atletismo Taldeko kideok. Autobusa joateko bakarrik izango da, sei euro kostako da bakoitzarena, eta hasiera batean, 55 plaza egongo dira. Horrenbestez, izena lehenbailehen emateko eskatzen dugu *kamelaitor@*



Euskaraldiko banderatzokoa.

gmail.com helbidera idatzita edo 665 75 68 11 telefono zenbakira deituta edo Whatsapp mezu bat bidalita. Ordainketa egunean bertan egin beharko da edo bestela, Bizum bidez, 665 75 68 11 telefono zenbakira. Autobusa 08:00ak aldera abiatuko da Bikamiotako biribilgunetik.

Euskaraldian izena eman daiteke

EUSKARALDIKO ORIOKO BATZORDEA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da aurten Euskaraldia, eta kaleak hartzeko prest dator herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea helburu duen ekimena. Dena dela, aurten entzun ez ezik, Euskaraldia ikustea eta kalean presente izatea ere nahi dugu. Horretarako, balkoietan zintzilikatzeko banderatzokak salgai jarri ditugu, 5 euroren

truke. Orion, kultur etxean dago Euskaraldiko banderatzokak erosteko aukera.

Oraindik Euskaraldian izena eman ez dutenek *euskaraldia.eus* webgunean dute horretarako aukera. Gainera, Orioko batzordeko kideok azaroaren 4tik 18ra bitartean, astean bitan, asteazkenetan eta ostiraletan, mahaia jarriko dugu kultur etxean, 17:30etik 19:30era, internetez izena ematerik ez dutenek aurrez aurre aukera izan dezaten. Azaroaren 18an, Euskaraldia abiatuko dugu eta ekitalditxoak egingo dugu plazan, eta egun horretan plazan jarriko dugu mahaia. Horrez gain, izen-emate orriak eta kaxa bana jarriko ditugu kultur etxean eta kiroldegian, mahaira bertaratu ezin dutenek izena emateko aukera izan dezaten.

Ariketa kolektiboarekin nagusiki hiztunen hizkuntza ohituretan eragin nahi dugu, euskarazko hizkuntza praktikak hedatzeko. Herritarrek Euskaraldian parte hartzera animatu nahi ditugu.

Martxan da Errigoraren udazkeneko kanpaina

ERRIGORA

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka, Bat egiteko garaia da lelo hartuta abiatu dugu Errigoraren udazkeneko kanpaina, Errigora aurrera eramateko auzolanak duen garrantzia nabarmentzeko asmoz. Aurreko urtetan bezala

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: *karkara@karkara.eus* edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío

hiru saski daude aukeran, eta eskaerak egiteko epea azaroaren 10ean amaituko da; internetez egin daiteke *Errigora.eus* helbidera idatzita eta telefonoz 848 87 12 23 zenbakira deituta. Horrez gainera, Orioko Herri Ikastolan aurrez aurreko eskaera ere egin daiteke. Denek Ikastolan jaso beharko dute saskia.

Bertakoa jan, ekonomian eragin, eta, gainera, euskara sustatu. Guzti hori da Errigora egitasmoaren saskia erosiz gero laguntzen dena. Izan ere, Nafarroa hegoaldeko jakiak erostean ordaindutako diru kopuruaren %25 bideratzen dugu Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintza sendotzera. Ekarpnaren beste zati bat Errigorarengandik jaiotako Agerraldia ekimenari bideratuko zaio, Nafarroa erdialde eta hegoalde zabalean euskarari hauspo berria emateko sortu zen mugimenduari. Udazkeneko kanpainan hiru saski daude aukeran:

- Beltza, 55 eurotan: oliba-olio birjina estra, orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, ezti, kardua, mahats-zukua, piper-mamia, teilak,

"ZAKURRA EDUKITZEA ZILEGI DA, BAINA EZ GAITZAZU JARRI BESTEOK HAREN KAKA JASOTZEN!"

molineritoak eta 2023ko egutegia.

- Berdea edo ekologikoa, 65 eurotan: oliba-olio birjina estra, orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, ardo-ozpina, tomate frijitua, arroz integrala, pasta, konbutxa tea, teilak, sagar-zukua, txitxirioak eta 2023ko egutegia.

- Zuria edo berezia, 75 eurotan: oliba-olio birjina estra, orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila kriantza, ardo zuri apartsua, patxarana, ardi-gazta, patxaran-pastak, polborioak eta 2023ko egutegia.

Zakur jabeei

GURASO BATZUK

Ostiral arratsaldean eta txokolatada antolatu dute Orioko ikastetxe bateko maila oso bateko gurasoek. Beste hainbatetan bezala, tirolinako parkean da hitzordua, Mendibeltz futbol zelaiaren ondoan dagoen parkean, hain zuzen. Guraso antolatzaileak ari dira mahaietan sandwichak, patatak eta edariak prestatzen, eta umeak hasi dira iristen. Ume mordoak. Mahaietatik zuzenean doaz parkera, baina, hara! Mahaiak dauden eremutik bidexka igaro, eta hartxintxorreko parkera pasatzeko dagoen zelai zatian, eta denek pasatu behar duten tokian, erdi-erdian, hortxe utzi du zakur jaberaren batek bere zakurraren kaka mokordoa.

Haserre eta inpotentzia eragin ditu kaka puskek. Ez

delako lehenengo aldia, milagarrena baizik, eta itxuraz, ez daukalako soluziorik.

Momentu batean umorezko film bateko pasarte bihurtu da gertaera. Kaka nola estali edo kendu eztabaidatzen hasi dira gurasoak. Belarra bota behar zaion, hartxintxorrak... Ama batek, bi aldiz pentsatu plater bat hartu, eta ekin dio kaka plater gainean jartzeari, gero zakarrontzira eramateko. Barre egin dute gehienek; bateren batek, ia botaka ere bai.

Zakurra duzun hori: zakurra edukitzea zilegi da, bai, baina ez gaitzazu jarri besteok zure zakurraren kaka jasotzen! ■■■

JAIOBERRIAK

- **Muhammad Wali Yaqoob Idrees.** Orion, irailaren 28an.
- **Unai Sanchez Romo.** Orion, urriaren 4an.

HILDAKOAK

- **Antonio Aizpurua Artetxe.** Orion, urriaren 14an. 85 urte.
- **Pilar Sese Olivera.** Orion, urriaren 14an. 95 urte.
- **Joanito Orella Roncal.** Orion, urriaren 19an. 70 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, **guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

MENDIZABAL
AROTZEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

HARATEGI PATXI OLIDEN URDTITEGIA

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10



Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Portu
Erretetza - Jabetza

Kazolitak, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34



Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa



kamarak



ibilbideak



generoa



garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Zer iruditzen zaizu Gau Beltza ospatzea?



MAIALEN ETXEBERRIA

Ikastolako kideok ohartu ginen haur eta gaztetxoek artean Halloween jaia indarra hartzen ari zela, eta horren inguruan hausnarketa egin dugu, ez atzerritik etorritako jaia geldiarazteko, hori ezinezkoa delako, baizik eta gurean ere Gau Beltza edo Arimen Gaua ospatzen zela ezagutarazteko. Horregatik antolatu genuen Txurumuskirekin elkarlanean Gau Beltza, urriaren 31n. Gure herrian urteetan galduta egon den jaia berreskuratzen eta gaur egunera moldatzen saiatu gara, eta tailerrekin batera gaztaina-jana ere egin genuen. Lehen Gabonen bueltan antolatzen zuen Ikastolak gaztaina-jana, baina azken urteetan galduta egon denez, Gau Beltzaren inguruan berreskuratzea aproposa iruditzen zaigu, garaiarekin bat datorrelako.



LORE BERASALUZE

Gau Beltza ospatzea ondo iruditzen zait, baina uste dut oreka bat aurkitu behar dugula Euskal Herriko jatorrizko ohituraren eta kanpotik etorri denaren artean. Belaunaldi berriek, haur eta gazteek, nahiko barneratuta dute Halloween jaia, eta Gau Beltza ere beraiena sentitzea erronka da guretzat. Etxez etxe goxokiak eskatzea, esaterako, dagoeneko zabaldua dago haurren artean, eta *Sari edo Ziri* hitz jokoa sortu da horretarako, euskaraz. Orain, nahi nuke Gau Beltza ere belaunaldi berrien artean errotzea, eta lanketa egiten badugu, agian lortu dezakegu bien arteko bat sortzea. Polita litzateke, adibidez, garai batean bezala, etxeko arropa zaharrekin eta trapuekin janzteko ohitura berreskuratzea, jaiari Halloweenak duen kutsu komertziala kentzeko.




MARIA ISABEL ETXEBERRIA

Nik haurrak jaiarekin ilusionatuta ikusi nituen, mozorrotzeko irrikaz zeuden aurreko egunetan, eta ez zait gaizki iruditzen Gau Beltza ospatzea. Nik dakidala Santu Guztiaren Egunaren bezperan ez zen horrelako jai berezirik antolatzen herrian, agian gu baino zaharragoa izango da ohitura. Hala ere, bazen Orion mozorrotzearekin zerikusia zuen beste ohitura bat, aspalditik galduta dagoena, Zamorro Txiki. Aste Santua baino lehen ospatzen zen, Garizuman. Mutil gazteak zaku bat burutik behera sartuta zutela ateratzen ziren kalera, aurpegia guztiz estalita, eta eskuan erratza izaten zuten. Kaletik zebiltzanen atzetik ibiltzen ziren erratzarekin joka. Gu Goiko Kalean bizi ginen, eta gogoan dut kale bazterrean nola egoten ziren, nonbait pasatu zain. ■■■

Esti Markez

Adi egon, azaroan ESTI MARKEZ-en bakarkako diskoa zozkatuko dugu karkara.eus-en





Odolekoak odola behar dutenei lagunduz

Odol Emaille Elkarteko Orioko eta Aiako arduradunei heldu zaie lekukoa pasatzeko unea. 50 urtez bete dute herriko ardura Maria Cristina Atorrasagasti eta Juan Jose Oliden senar-emazte oriotarrek, eta 30 urtez, berriz, Pilar Mintegi eta Fermin Zuloaga senar-emazte aiarrek. Oriotarrei Karnele alabak hartuko die lekukoa. Aian, berriz, ordezeko bila dabilta.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Onintza Lete Arrieta**.



Hogei minutuko tartean, ozta-ozta ikusiko duzu gustuko telesail horren kapitulu bat; lauzpabost abesti entzuteko denbora emango dizu; kafe bat hartzeko astia ere bai, etxe ondoko kafetegian. Hogei minutuan gauza txiki asko egin daitezke, baina baita ekintza handi batzuk ere: bizitza bat salbatzen lagun dezakezu, esaterako. Ez da, izan ere, denbora gehiago behar odola emateko odol emaileen elkarteek antolatzen dituzten saioetan. Ondo dakite hori Orioko eta Aiako arduradunek.

Maria Cristina Atorrasagastik, esaterako, ez du ikaragarri odol pila eman, baina urtean 80 minutu baino askoz gehiago eskaini dizkio odol emaileen elkarteari, berak izan baitu Orioko taldearekin arduraduna 50 urtez. Juan Jose Oriden senarra izan du alboan zeregin horretan hasieratik, eta laster Karnele alabak hartuko die lekukoa. Poza eta patxada ematen die horrek.

Aiako arduradunek ere hiru hamarkada daramatzate odol emaile elkarteari lagunduz, eta horiek ere senar-emazte dira: Pilar Mintegi eta Fermin Zuloaga. Eta, haiek ere, Tamara alaba dute laguntzaile. Haiek, ordea, lekukoa hartuko dien norbaiten bila dabilta, eta hala jakinarazi diete herritarrei urriko odol ateraketa jakinarazteko bidalitako abisuan. Norbait animatuko balitz, haiekin harremanetan jartzea besterik ez luke edo, bestela, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartera deitzea. "Gu hasi aurretik, arduradun herriko medikuak eta praktikanteak zuten, eta haiek pasatu ziguten testigua. Pilarrek

Ondoko orrian, Orioko odol emaileen arduradunak: Juan Jose Oriden, Maria Cristina Atorrasagasti eta Karnele Oriden senar-emazteak eta alaba.

Goiko irudian, Fermin eta Tamara Zuloaga aita-alabak, Aiako odol emaileen arduradunak.

"GAZTE TALDE BAT ELKARREKIN JOATEN DA ODOLA EMATERA, EDERRA ARMATZEN DA; OSO POLITA DA"

MARIA CRISTINA ATORRASAGASTI, ORIO

"Hogei minutuko kontua da"

JUANITO SAN SEBASTIAN ODOLA 126 ALDIZ EMAN DUEN ORIOTARRA

Lehengusu propioak dira Juanito San Sebastian (Orio, 1961) eta Maria Cristina Atorrasagasti Orioko odol emaileen elkarteko presidentea, eta odolak bi aldiz estuki lotzen ditu: familiakoak izateaz gain, odol emaileen elkarteari asko lagundu baitio San Sebastianek. Ez alferrik, inguruetan odol gehien eman duenetako bat izango da: 126 aldiz emana du, alajaina.

Odola urtean lau aldiz eman dezakezue gizonezkook; 126 aldiz eman ahal izateko, urte batzuk beharko zenituen eta horietan fin-fin ibili, huts asko egin gabe.

1983. urtetik ari naiz; 22 urterekin hasi nintzen odola ematen.

Gogoan al duzu lehen aldi hura?

Ez. Uda aldea zela uste dut, baina besterik ez.

Zergatik hasi zinen odola ematen?

Maria Cristina lehengusinak esanda hasi nintzen. Eman nahi al nuen galdetu zidan, baietz esan nion, eta ordutik, orain arte.

Eta gutxitan huts egingo zenuen...

Bai. Begitik operatuta ibili nintzenez eta hala. Guztira, 40 urtean dozena erdi batean ez nuen emango.

Zeuri inoiz eman dizute odolik?

Ez, behin ere ez. Nire odola, gainera, 0 negatibo da; hau da, nireak denentzat balio du, baina neuk klase horretakoa bakarrik jaso dezaket. Odola ematen hasi

nintzenez jakin nuen zer mota neukan neuk. Badakizu, orain 40 urte, ez ziren jakiten gauza horiek.

Odola hainbestetan emana izateko, ez zara mareatzen diren horietakoa izango...

Inoiz ez naiz mareatu; horretan ez dago kuidorik.

Etxean plaka edo oroigarri dezente izango dituzu.

Aurreneko oroigarria 25 aldiz odola emandakoan jasotzen da; gero, 40 aldiz emandakoan, 50 aldiz emandakoan ere bai... eta, azkenik, 100 aldiz emandakoan. Hori eman zidaten azkena.

Gipuzkoa osoko odol emaileak elkartu ginen bazkaritan, eta han jaso nuen.

Beste inork jaso al zuen oroigarriak 100 aldiz odola emateagatik?

Orduko hartan neuk bakarrik; ez dut uste Gipuzkoan 126 aldiz odola eman duen jende asko egongo denik. Bakarren bat egongo da agian, baina neuk behintzat ez dut entzun inoiz.

Zorte ona ere eduki duzu, nahiko erraza izaten delako odola ematera joan eta etxera itzultzea eman gabe, dela katarroa, dela tatuajea, dela tentsio altua...

Behin egon nintzen odola eman ezinda lau hilabetez, bai, tentsioa altu samar neukalako.

Odola eman ondoren ere, egoten da hura baztertzeko aukera. Elkartekoen deia beldurrik izan al duzu inoiz?

Beldurrik inoiz ez, eta deirik ere ez dut inoiz jaso nire odola baztertu behar zutela esateko.

Urtean lau aldiz elkartzen zarete ambulatorioan. Halako egitasmoetan lagunik egiten al da?

Neuk ez dut lagunik egin, eta nire lagunak ere ez dira joan izan odola ematera. Tira, bat joaten zen, baina gero botika hartzen hasi zen odola mehetzeko, eta ordutik ezin izan du joan. Ni joaten naiz, ematen dut, zerbait jaten dut, eta etxera. 16:30etik iluntzera zabaldu ohi dute pandemia hasi zenetik, eta aurreneko orduan joaten naiz ni.

Familian beste inork ematen al du odola?

Garai batean, gure anai zaharrenak ematen zuen, baina 66 urte eginak ditu, eta jada ez du ematen.

Elkartekoei laguntzen aritzen zara, Maria Cristina lehengusinari eta.

Pandemia hasi aurretik, ogia eraman eta halakoak egiten nituen, bai. Pandemiarekin, Donostiatik ekartzen hasi ziren otartekoak, baina orain arte harategira joan, gero ogia ekarri eta halakoak egiten nitzien. Pandemiarekin tristeagoa izan da odola ematea: jende gutxiago, denak maskarak jantzita, kalean egon behar txandaren zain... Ea laster lehengora itzultzen garen.

Hainbeste urtetan, bitxeriarik ere gertatuko zitzaizuen, ala?

Beti izaten da norbait mareatu dela odola eman eta altxatzerakoan edo, baina gainontzean, ez pentsa. Ez dut gogoan aparteko ezer. Zorabio horiek saihesteko, orain ura



Odola hainbeste aldiz emateko, zeuri on egingo dizula pentsatzen dut. Zer esango zenieke herritarrei?

Esango nieke hogei minutuko kontua dela. Joan, odola eman, pixka batean egon, zerbait jan, eta kalera. Hogei minutu dira. Ez da beste munduko ezer. Baina, jendea badakizu nolakoa den; *paso* esaten dute askok. Esango nieke eman dezatela odola. Kito.

Helbururik jarri al diozu zeure buruari?

Ahal dudan bitartean odola ematen jarraituko dut, gustura ematen dut eta. Baina helbururik ez daukat.

Laster lehengusinak alabari pasatuko dio lekukoa.

Bai, makina bat urtean aritu izan da bera, eta alabak nahi badu, aurrera.

ematen diote hasieran nahi duenari.

Zeuk 61 urte dituzu. Gazte jendea nola ikusten duzu?

Odola ematera joaten al dira?

Askorik ere ez. Betikoak gabiltza; berriak ez da ikusten hor.

NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatuta aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karakara.eus e-posta helbidera bidali azaroaren 25a baino lehen.

Saria: Bodegon Sarasuaren eskutik 2 lagunentzako otordua. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Urriko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkatuta zegoen asmatu behar zen. 9. orrialdean zegoen ezkatuta, eta **Josune Zabaleta** bazkidea izan da irabazlea.



Ezkerreko argazkian, Juanjo Polo Aiako bizilaguna odola ematen aurreko astean, urriak 24, Lardizabal eskolan.

Eskuineko argazkian, odol emaile baten odol poltsa.

"AURRETIK MEDIKUAK ETA PRAKTIKANTEAK ZUTEN ARDURA; HAIK PASATU ZIGUTEN LEKUKOA"

FERMIN ZULOAGA, AIAKO ARDURADUNA

"BADAKIT GURASOAK ORAINDIK HOR EGONGO DIRELA, ETA LASAI NAGO. PIXKANAKA IKASIKO DUT"

KARMELE OLIDEN, ORIOKO ARDURADUNA

ambulatorioa garbitzen zuen, eta hari eskatu zioten ardura hartzeko", gogoratu du Zuloagak.

Aian joan den astean egin zuten urteko azken odol ateraldia, urriaren 24an, eta aita-alabak fin-fin aritu ziren mokadua prestatzen nahiz bestelako lanak egiten Lardizabal eskolan. Ateak zabaldu zituztenerako, han ziren aurreneko herritarrak odola emateko prest, tartean baita beteranoak ere, 67. aldiz odola eman duen Juanjo Polo Aiako bizilaguna kasu. Urtean hiru ateraldi izaten dira Aian –otsailean, ekainean eta urriaren– eta lau, berriz, Orion –martxoan, ekainean, irailean eta abenduan–. Hain justu, abenduaren 1ean dute aurtengo azken hitzordua Orion. Ambulatorioko beheko solairuan ateratzen dute odola, eta mokadutxoak egiteko mahaia ere han jartzen dute. Une hori du gogokoan Oliden aitak, batekin eta bestearekin berriketan aritzeko. Horri lotuta, alabak esan du gurasoei utziko diela beste herrietako delegazioekin harremanetan segitzen, "beren kuadrillatxoak baitute han". Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak bazkaria antolatzen du urtero, eta gustura joaten dira lagun artera. "Ahal duten artean eutsi diezaiotela horri", gaineratu du. Izan ere, ambulatorioko horma hotzen artean, herritarren epeltasuna ere sentitu dute urte hauetan guztietan. "Tertulia ederrak izan ditugu", gogoratu dute senar-emazteek. 2020ko martxoan iritsi zen COVID-19ak eta pandemiak zapuztu egin zuten giro hura, baina berriz berreskuratzea espero dute. "Tristeia izan da", esan du Olidenek. Ambulatorio kanpoan itxaron, banaka-banaka sartu maskara soinean dutela, Donostiatik ekarritako otartekoa jan, eta inorekin egon gabe, etxera. "Espero dugu urtarriletik aurrera berriz geu hastea mokadua ematen", gaineratu du Atorrasagastik. Aian berreskuratu dute ohitura, eta aurreko astean normal jarri zituzten jan-edanak Zuloaga aita-alabek.

Aldaketak gizartean eta odol emailetan

Atorrasagastik eta Olidenek herriko elkartearen sorreran parte hartu zuten duela 50 urte, eta denborarekin gauzak majo aldatu direla nabarmendu dute. Garai batean, odola ematen zuten herritarrentzat

eskutitzak prestatu eta horiek banan-banan partitzen zituzten etxeetara, fitxak betetzen zituzten eta abar. Orain, zuzenean elkartekoek abisatzen diete odol emaleei, eta odolean zerbait atzeman badute ere, odola eman duenari deitzen diote zuzenean. "Lehen guri esaten ziguten, guk halakori esateko ezin zuela odola eman. Inoiz ez ziguten esaten arrazoia zer zen, baina hala ere, guk uste dugu ez geneukala zertan jakinik, eta eskatu genien hori beraiek esateko", azaldu du Olidenek. Aurreneko urteetan finantziazio bila ere aritu behar izaten zutela kontatu dute. "Orain, udalak laguntzen du diruz. Lehen, geure patrikatik egiten genuen dena, eta gero, elkartearen baimenarekin, pegatinak partitzen ibiltzen ginen sos batzuk ateratzeko".

Istorio latzak ere bizitakoak dira. "Aspaldi, jaioberri batek behar izan zuen odola, eta Oriotik Bilboraino joan ginen besotik besora emateko. Aurrena lauzpabost joan ginen, taxian, eta ondoren, haurra operatzeko unean bertan ere odola ematea behar zuten, eta herriko taxilaria bera joan zen odola ematera. Umea hil egin zen, hala ere". Gaur egun odola gordeta edukitzen dute. Lehen, ordea, larrialdiak zeudenean elkartekoek herrietakoei deitzen zieten odola ematera berehala joan zitezten.

Aurreko hamarkadetako garai ilunez ere mintzatu dira senar-emazteak. Heroina eta HIESa gizartera iritsi ziren garaiez, hain zuzen. "Beldurra izaten zen, bai odola emateko, bai odola jasotzeko. Segurtasun neurriak beti izan dira zorrotzak, baina gertatu ziren istripuak ere", gogoratu dute. "Batzuk odola ematera joaten ziren jakiteko ea gaixotasunen bat zuten ala ez. Orion, behintzat, ez zioten inori detektatu", azaldu du





**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA 2022**

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

**FINALAURREKOAK
2. ITZULIA**

AMURRIO
Azaroak 19, larunbata, 17:00
Bañueta Kiroldegia

BAIONA
Azaroak 26, larunbata, 17:00
Lauga

BILBO
Abenduak 3, larunbata, 17:00
Bizkaia Frontoia



FINALA

IRUÑEA
Abenduak 18, igandea, 11:00
Nafarroa Arena

Antolatzailea: 

Laguntzailea:      

Odola eman dezakezu:



Otordu arina eginda

Ez etorri baraurik odol ematera.



Ondo hidrataturik

Odola emateko ondo hidrataturik egon behar duzu.



Atsedean harturik

Garrantzitsua da donazio gunera atsedean hartuta etortzea.



Hepatitis 12 urte bete baino lehen

Odola eman dezakezu hepatitis 12 urte baino lehen pasatu bazenuen.



50 kilo baino gehiago pisatzen baduzu

18 eta 65 urte artekoa bazara eta 50 kilo baino gehiago pisatzen baduzu.



Kolesterol altua

Zure odoleko kolesterol maila altua bada ere.



Botikak

Nahiz eta ohikoenak diren botikak hartu.



Tatuaturik egon arren

Lau hilabete baino gehiago pasatu badira, eman dezakezu odola.

Atorrasagastik. "Gipuzkoa mailan, ordea, badakigu baietz", esan du Olidenek. "Inoizko kontrol handiena dago gaur egun odol emaileen elkarteetan. Ikusita daukagu odola non edukitzen duten eta zer prozesu egiten den, eta harrigarria da. Hala behar da, gainera, kasu gogorrek gertatu direlako".

Aldaketa nabarmeneneak azken hamabost urteetan izan direla esan dute senar-emazteek, batez ere aurrerapen teknologikoei esker. Alabak ere horixe uste du, txikitatik ikusi izan baitu etxean gurasoek egiten zuten lana. Lekuko aldaketari dagokionez, lasai dago. "Badakit gurasoak oraindik hor egongo direla, eta beraz, lasai nago. Pixkanaka ikasiz joango naiz. Lehengo aldean lan arina da, gainera. Txikitatik laguntzen diet, eta ikusten nuen zer lan izaten zen: norbaiten fitxa atera, ea odola eman zuen begiratu, eta ziurtatu bat al zetozen fitxako eta hango zenbakia... Orain kontrol guztia elkarrean eramatean du".

Oroitzapen eta momentu onak

Bestalde, urte hauetan esker oneko hitzak ere jaso izan dituzte gizartearen alde egiten duten lanagatik. Esaterako, momentu batean odola behar izan zuen familia batek eskertu zien beren lana, "eta gero, beraiek bihurtu ziren odol emaile", gogoratu dute.

Senar-emazteak odol-emaileen giroan bizitako momentu politekin gelditzen dira: "Tipo bat bazen, odola ateratzen zuen bakoitzean mareatu itxura egiten zuena. Denok joaten gintzaizkion laguntzera, eta orduan esaten zigun txantxa zela. Behin, benetan gertatu zitzaion, eta guk sinetsi ez!", esan du barrez Olidenek. Senarrari istorio hori entzunda, beste batez akordatu da Atorrasagasti: "Gutxienez 50 kilo pisatu behar izaten dira odola eman ahal izateko, eta herritar bat ez zenez horretara iristen, badakizu zer egin zuen? Bada, harriak sartu zituen patrikan pixka bat gehiago pisatzeko. Baina hala ere ez zen iritsi. Haren pena! Gutxi falta zitzaion iristeko, eta anemiarik ez zenez eta tentsioa ondo zeukanez, azkenean atera egin zioten odola".

Atorrasagastik, irribarrean ezpainetan, kontatu du badela hitzordura beti agertzen den kuadrilla bat. "Gazte talde bat beti ordu berean joaten da odola ematera; lagunak dira, eta ederra armatzen da. Oso-osoa polita da, eta pozik egotekoa da hainbeste gazte azaltzen delako". Momentu onean hartuko dute erretiroa, beraz, oriotarrek. ■■■

Hitzetatik ekintzetara



EGOITZ DORRNSORO

Krisi garaian bizi omen gara, elikagaien krisia, energiarena, klimarena, gerra, etxebizitzarena... Kapitalismoaren eta kontsumo ereduaren ondorio denak ere. Hala ere, nire zalantzak ditut ia benetan azken hatsean egoteak aldatu dituen arazo edo krisi horien inguruko politikak. Nire ustez, zehatzagoa litzateke krisi horien aitzakiapean negozioa ikusi dutela esatea. Krisialdi honetatik "irteteko" erabakietan ez baita ikuspegirik aldatu. Orain arte bezala, gizartea zaurgarriago bilakatuz, etekin ekonomikoa eta aberastasunaren metatzea dute ardatz. Etxeen teilatuetan eguzki plakak ipini beharrean, naturguneak industrializatuz, adibidez. Hau da, lehendik eraikiak ditugun espazioak probestu beharrean, lursail gehiago eraikiz. Zementuaren eta etengabeko hazkundearen politika.

Honetaz pentsatzen ari nintzela, euskara ere ispilu dela etorri zait burura. Gure hizkuntza galbidera kondnaturik daukate Ajuria Enea bezalako bulegoetan. Hizkuntza politika zaharkituak hizkuntzaren erabilpenean atzerakada eragin du. Erabakiguneen arabera, ausardiaz jokatu baino hobe da: EITBn 160 film erdaraz eman bitartean euskaraz bakarria botatzea eta salaketan ondorioz, pare bat film emititzea euskaraz 23:30ean, *prime time* bete-betean. Edo Pantailak Euskaraz plataformako kideei twitter kontua itxi dietenean isilik geratzea. Zein funtzionarioek euskara ikasten dutenean pasatako momentu "txarren" mitoa sustraitzen laguntzea. Eta inoiz ez mintzatzea haur bati medikuak ulertzen ez dionean, edo ertzainei beldurrez badaezpada erdaraz hitz egitean pasatako ikara eta ezinegonez. Praktikoagoa da euskararen kontrako epai guztien aurrean isilik geratzea. Horrelako milaka eta milaka adibide jar nitzake baina, funtsean, euskara kapitalismoarentzat ez dela praktiko adierazten dute. Egungo sistema hau aldatzen ez dugun bitartean, produkzio indarrek euskararekin negozioa ikusi arte jai dugu. Eta hori, tamalez ez dut uste sekula gertatuko denik.

Ondorioz, bi bide ditugu, egoera hau onartu, aldaezina dela sinetsi eta hiltzen uztea. Edota herri honetan askotan egin den bezala, norberaren eragiteko indarrean sinetsi eta alternatibak sortu eta bultzatzea. Horretan hasteko aukera bikaina dugu egunotan, Euskaraldia. Hizkuntza ohiturei astindu bat emateko aukera ezin hobea. Hala eta guztiz ere, gure inguruko hizkuntz ohituretan eragiteaz gain, politketan ere eragiteko erabili behar dugu. Adibidez, Euskaraldia lagun, EITBk hitzetatik ekintzetara igaro behar luke. Ezin baita beti norbanakoen gain utzi ardura. Eta erabaki politikorik gabe, ia ezinezkoa delako esparru oro euskalduntzea, lan esparrua kasu. Are gutxiago, bizitzako alor guztiak euskaraz burutzeko egoerara iristea. ■■■

**"EUSKARA GALBIDERA
KONDENATURIK
DAUKATE AJURIA ENEA
BEZALAKO
BULEGOETAN"**



Egunero da Azaroaren 25a

Azaroaren 25a, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, iristear dagoen bakoitzean sentimenduak dantzan jartzen zaizkit.

Askorentzat, urteko ohiko ekintza bat besterik ez da; beste batzuentzat, zerbait anekdotikoa. Niretzat, berriz, kontadorea begiratzu samintzeko eguna da; lotsaren, injustiziaren eta ezin ulertuaren eguna.

Oraindik ere, ezin dut ulertu nola ez diogun pandemia beltz honi gogortasunez ekiten. Baditugu legeak, protokoloak eta gizarte politikak, baina horrek ez du bermatzen berdintasun errealik, ezta emakumearen aurkako indarkeria gabeko gizarterik ere.

Gizaldiz gizaldi, aurkaria menperatzeko tresna gisa erabili da indarkeria, gatazkak konpontzeko, boterea edo estatusa lortzeko eta mantentzeko. Baina genero indarkeria harago doa oraindik; emakumea izateagatik soilik pairatzen dugu, eta helburua da mendekotasuna, beldurra, kontrola eragitea eta jabegoa izatea. Era horretara, bigarren mailako izaki bihurtzen da emakumea, erasotzaileen menpe egonik.

"ETXEAN, AUZOAN EDO LANTOKIAN, GUZTIOK DAUKAGU GENERO INDARKERIA KASUREN BAT"

Indarkeria mota horrek epe motzera zein luzera ondorio larriak izaten ditu emakumeengan zein neskatilengan; bai fisikoak, bai ekonomikoak, bai psikologikoki. Besteak beste, gizartean berdintasunean bete-betean parte hartzea galarazten du.

Hori guztia bizi garen gizarte *zisheteropatrialkalaren* eragina da, eta zuzenki eragiten digu guztioi. Izan ere, eredu hori horren barneratua dugu, pertsona asko ez baitira gai zenbait indarkeria matxista hautemateko ere.

Gizarte eraikuntza horretan, komunikabideen erantzukizuna ukaezina da. Horiek islatzen dutena gure iruditeriaren parte izatera pasatzen da. Beraz, sentsazionalismoa alde batera utzita, genero indarkeriaren

HAUXE BAI JENEROAI!



trataera egokia egin behar dute, alderdi pedagogikoan indarra jarritz.

Horrenbestez, genero indarkeriaren biktima asko ez dira gai beraien burua biktima bezala identifikatzeko, ez baitira albistegietan ikusten dutenaren antzeko.

Alde batetik, hedabideetan genero indarkeriaren inguruan azaldu ohi diren berriek trataera desegokia izaten dute. Izan ere, biktimak ez dira hiltzen, erail egiten dituzte. Horrek erasotzaileari ardura kentzeaz gain, ez du genero indarkeria biktima legitimatzen. Ez da matiz kontu bat soilik, guztia aldatzen du, erabat: ez da gauza bera "emakume bat hil da bere bikotekidearen eskuetan" esatea edo "emakume bat erail du bere bikotekideak" esatea. Horri, genero ikuspegia deritzo.

Tamalez, ongi aplikatzeko borondatea egonda ere –hala pentsatu nahi dut– oraindik ez da egiten.

Bestetik, indarkeria matxistaren inguruko berriek sentsazionalismo kutsua dute. Badirudi, inpaktua eragiten duten albisteek bakarrik dutela tokia hedabideetan, atentzioa erakartzea dela helburu, eta ez gizartea formatzea eta informatzea. Odola eta beldurra zabaltzeaz gain, badago zereginik gizarte eraikuntza patriarkala desegiten joateko. Akaso, ezin dute genero indarkeriaren inguruko sententzietan buruz jardun? Eraiketek eta indarkeria sexualak baino ez al dute tokirik?

Aldez aurretik aipaturiko indarkeriez gain, badira aipatu ere egiten ez diren beste hainbat; ondorioz, ez dira indarkeria moduan hartu ere egiten.

Mespretxuak eta oihuak indarkeria dira. Manipulazio emozional afektiboa indarkeria da. Pentsioak ez ordaintzea eta finantzen kontrola indarkeria dira. Soldata arrakala indarkeria da. Sakelako telefonoaren kontrola indarkeria da, eta horrela, adibide zerrenda luzea egin daiteke.

Agerikoa da emakume guztiok pairatu edo pairatzen dugula indarkeriaren bat. Biktimak ez dira albistegietan ikusten ditugun emakume horiek soilik. Etxean, auzoan, herrian edo lantokian, guztiok daukagu genero indarkeria kasuren bat. Zoritxarrez, umeek ere pairatzen dute, eta zer esanik ez *zisheteropatriarkatuan*, interseksionalitatearen ikuspegitik.

Ezinbestean, gizarteari helarazi behar zaio arazo estruktural honen dimentsioa, eta esparru guztietan ematen diren jokabide matxistak salatu egin behar dira.

Erantzunkidetasuna guztiona da, ez bakar batzuen soilik. Eraiki ditzagun sareak, ahaldundu gaitezen, eta rol eta estereotipoekin apurtu; guztion zeregina da, baina bereziki gizonena. Indarkeria matxistaren biktimak ez daitezela ikusezin, bakarrik, epaituak eta babesik gabe sentitu. Jar dezagun gizartearen begirada gure sostengua behar duen horretan. ■



BODEGON
Sarasua

 info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

Oreka
 fisioterapia
 Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37
 Ekografia muskulo-eskeletikoa
 Eskuzko terapia · Talka-uhinak
 Masaje terapeutikoa · Osteopatia

ORANGA
 burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
 Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

SUKIA
 TABERNA · JATETXEA
 Eguneko menua
 Asteburuetakoa
 Oilaskoak eramateko
 Ogitartekoak
 Plater konbinatuak
 Terraza ederra
 (alboan umeentzako parkea)
 Abaromendi 38, behea 1
 ORIO · 943-89 21 29


Usurbil Autoak
**TXAPA - PINTURA -
 MEKANIKA**
 ESKATU AURREKONTUA
 KONPROMEZURIK GABE
 Aitezarra Kalea, 24, 20170 · Usurbil
 943-36 10 79
 usurbilautoak@gmail.com





Zaragueta IPI
 HERRI ESKOLA 2-16
 943-89 92 43
 012137aa@hezakuntza.net


**JARRI
 HEMEN
 ZURE
 IRAGARKIA**

**ZINKU
 ERAIKUNTZAK**
 • Igeltserotza orokorra
 • Etxebizitzan erreformak
 • Teilatuak
 • Sukalde, komunak, etb.
 • Eraisketak
*deitu eta eskatu aurrekontua
 konpromisorik gabe*
Ander Zinkunegi
667 74 02 79


Zarautz
Hileta Zerbitzuak
 1962. urtetik zure zerbitzura
24 ordu zure zerbitzura Beilatokia ·
 Lekualdatzeak · Eginbide guztien tramitazioa
ORAIN ABENDAÑON GAUDE
 Urteta bidea 2, ZARAUTZ
 943-89 49 37 · 943-42 21 29
 info@zarautzhiletazerbitzuak.eus




Sinergia
 fisioterapia eta ikerkuntza
 Ibai ondo, 1 behea · ORIO
 943-13 05 77 · 685 71 85 95
 sinergiafisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.



ZARAGUETA HERRI ESKOLA

"DBH gure eskolan ezarri izanaz eta euskararen aldeko lanaz nago harro"

JUANJO ZUBIZARRETA ZARAGUETAKO IRAKASLE OHIA



Juanjo Zubizarretak, *Xubi* ezizenez ezagunagoak, hainbat urtetan Zaraguetan irakasle izan eta gero, 2021-2022 ikasturtean hartu zuen erretiroa. Bere egunerokoan tartetxo bat eskaini digu galdera hauei erantzuteko:

Zenbat urte egin dituzu irakasle lanetan? Eta Zaraguetan?

Irakaslea izan naiz 37 urtez, eta Zaraguetan 17 urte egin ditut, azkeneko 15ak jarraian. Horiestatik zortzi, zuzendari.

Nolako zen hasierako Zaragueta hura?

Hasieran, zortzigarren maila arte ematen ziren eskolak, egun DBH 1-2 direnak. Garai bateko gure Haur Hezkuntzako eraikina gaur egungo musika eskola zen. Zaraguetan egin nituen lehen bi urteak han pasatu nituen. Zarauzko irakasle asko zeuden orduan. Zertan aldatu da ordutik?

OHOtik LH-HHra pasatu ginen, eta horrek aldaketa asko ekarri zituen. Gerora, aldaketarik handiena DBH ezartzea izan da. Orain 16 urtera arte eskolan bertan egoten dira ikasleak. **Zuzendari ere izan zinen. Urte haietako zer lorpenez zaude harro?** DBH gure eskolan ezartzeaz eta euskararen alde egindako lanaz. **Zer eskaini dio Zaraguetak herriari?**

Eskola publiko eta euskaldun batek eskaini dezakeen guztia. Eskolak duen tamainak lagundu egin digu familiekin eta ikasleekin gertuko harremana eraikitzen.

Faltan botatzen al duzu irakaskuntza?

Oso gustura bizi naiz egoera berri honetan, baina lanera bueltatu beharko banu, dudarik gabe, irakaskuntzara itzuliko nintzateke.

Erretiroak zertarako beta eman dizu?

Kezka gutxiagokin bizi naiz. Bestalde, gustukoak ditudan ekintzak egiteko denbora gehiago daukat. ■■■

"LANERA BUELTATU BEHARKO BANU DUDARIK GABE IRAKASKUNTZARA ITZULIKO NINTZATEKE"



DANIELA BERNEDO

Zoria

Mahsa Amini 22 urteko neskatila atxilotu zuten orain aste batzuk janzkera egokia ez eramateagatik. Mahsa Irango poliziek atxilotu zuten, buruko zapia ez zuelako ondo jantzita. Emakumea handik hiru egunetara hil zen. Poliziek esaten dute hilketak ez duela zerikusirik atxilotetarekin, baina aitak salatu zuen bere alabak hantetan zauriak zituela. Aitak dio bere alabak ez zuela osasun arazorik; Poliziak, ordea, bihotzekoak emanda zendu zela dio.

Kasualitatea? Ez. Ez da posible neska gazte bat osasuntsu egotetik, bat-batean, bihotzekoak jota hiltzea. Bestalde, tamalgarriena iruditzen zaidana da poliziek beraien burua babesteko horrelako gezurrak erabiltzea.

Amaitzeko, egia da herrialde bakoitzak bere erlijio eta ohiturak dituela, baina burua tapatuta eramatearen inposizioarekin ez dut bat egiten. Noski, ez dut zalantzan jartzen eta zilegi iruditzen zait eraman nahi duenak eramatea; izan ere, nor naiz ni hori ezbaian jartzeko. Baina, ez al gara askeak bakoitzak nahi duena erabakitzeko? Kasu honetan bezala, muturreraino iritsi behar izateak, izugarritzko lastima ematen dit. Orduan, beste zenbait herrialdetako emakumeekin alderatzen naiz, eta ohartzen naiz zer nolako zortea dudana, ala beste batzuk zer gutxi izan duten. ■■■

"Urteek erakutsi digute momentua dastatu egin behar dela"

ASIER GOZATEGI MUSIKARIA

Hiru hamarkada plazan daramatzaten taldeak gutxi izango dira munduan, baina Orion bada bat: Gozategi.

Asier Gozategik eta Iñigo Goikoetxeak gidatzen duten taldeak aurten bete ditu 30 urte, eta urteurrena modurik onenean ari dira ospatzen: herriz herri eta festaz festa, ia 50 kontzertu eman dituzte.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.

Aurten 30 urte bete ditu Gozategi taldeak. Erraz esaten da. 1992an hasi zuten bidea Ainhoa eta Asier Gozategi anai-arrebek eta Iñigo Goikoetxeak, eta hamar disko, milaka kontzertu eta milioika kilometro geroago, sasoi batean jarraitzen du taldeak, Asierren eta Iñigoren gidaritzapean —Ainhoak 2006an utzi zuen taldea—. Baina hiru hamarkada hiru hamarkada dira, eta ez dira alferrik pasatu. Ordukoen, oraingoen eta bidekoen jardun du Asier Gozategik (Orio, 1972).

Uda aurretik zenioen aurtengo agendari begiratu eta sekula baino bertigo handiagoa sentitzen zenuela. Zer ematen zizun bertigoa?

Bertigoa ematen zidan udako hitzartuta genituen kontzertu guztiak zerrenda batean ikusteak. Bi urte geldirik egon eta gero, nire kezka zen lan karga horri guztiari erantzuteko kapaz izango ote ginen, eta erantzun bakarrik ez, baita nola erantzungo genion ere.

Zerrendaren azkenetara iritsi zarete. Zer moduzkoa izan da uda?

Zoragarria izan da. Orain atzera begiratzen dugu eta "uda egin dugu?" galdetzen diogu geure buruari. Hunkigarria izan da plazak gainezka

ikustea, eta plazan ikustea gazteak, helduxeagoak, helduak, aiton-amonak, denak batera; horrek asko balio du. Ematen du ahaztu egin zaigula, baina bi urtean etxean egon gara, eta jendeak beharra zeukan.

Zenbat kontzertu eman dituzue?

50 bat. Martxoan eta apirilean pare bat kontzertu eman genituen, eta maiatzean hasi eta oraintxe arte gelditu ere egin gabe ibili gara. Emanaldi gehienak ekainetik irailaren bukaerara bitartean egin ditugu, baina urrian ere izan ditugu, eta azarorako eta abendurako ere baditugu.

Beraz, ia urte gutzia irau du zuen udak...

Gutxi gorabehera. Gainera, izan da ustekabeen etorritakoa. Urtarrilean imaginatu ere ezin genuen egin horrelako urtea egingo genuenik, artean saio bat bera ere ez baikeneukan lotuta. Oraindik ondo gogoan dut otsailaren 14an Tolosako alkateak nola esan zuen karnabalak egin egingo zituztela. Momentu hartantxe hasi zen telefonoa jotzen, eta oraindik ez da isildu.

Pandemia aurretik, gutxi gorabehera zenbat kontzertu ematen zenituzten urtean?

30 bat kontzerturen bueltan ibiliko ginen, eta hori asko da. 30 kontzertuko urtea, urte oso ona da.

Eta aurten zer gertatu da?





Gozategi Kilometroak 2014 festan, Orion. UTZITAKOA



2017ko Bilboko jaietan, 25. urteurrena ospatzen. UTZITAKOA

Txorrota itxita egon dela bi urtean, eta ireki dutenean... Jendearen emana ere sekulakoa izan da.

Porru patata-rik gabeko festarik izan ote da Euskal Herrian?

Porru patata-rena izan da kristorena, pasada bat. Hamasei urte dauzka kantak, 2006koa da, eta udako kanta izan da. Orain dela bost urte ere, taldearen 25. urteurrenean, kontzertu pila eman genituen han eta hemen. Donostian jo genuen,

Bilboko jaietan jo genuen eta ospakizunik handiena-edo Iruñeko kontzertua izan zen. Orduan, *Kalanbreak* zen momentuko kanta; "Astelehena biharamun..." hasi, eta lehertu egiten zen plaza. Aurten hori gertatu da *Porru patata*-rekin.

Aurtengo udako emanaldiren bat nabarmendu beharko bazenu?

Toki askotan hunkitu gara. Zenbat aldiz esan ote dugu "gaurkoa ez dago gainditzerik", eta hurrengo egunean joan eta gainditu. Bakarra aukeratu beharko banu, Leitzakoa (Nafarroa) esango nuke, abuztuaren 12an eman genuena. Iritsi ginenetik euskal giro jatorra, zaharrak, gazteak... San Joan egunean Andoainen eman genuena ere kristorena izan zen, Aginagakoa ere bai, Getariakoa, Aiakoa... Eta Orioko gaztetxean eman genuena, magikoa. Jende aldetik ez zen izan handiena, baina kontzertu handi bat emateko ez dago derrigor jende askoren aurrean jardun beharrik; badaude kontzertu txiki handiak, eta Etxeluzekoa hala izan zen. Plaza kutuna aukeratu beharko banu, berriz, Gipuzkoan Tolosa esango nuke; eta Bizkaian, Gernika. Joan garen aldi bakoitza izan da ona; asko jaso dugu bi plaza horietan.

Espero ez zenuten zerbait topatu al duzue plazetan? Zerbaitek harritu al zaituzte?

Konturatu garena da kontzertuetara gazte jendea pila bat etorri dela, 13-14 urte ingurukoa eta gazteagoa ere bai. Ez dakit Gozategi orain deskubritu duten edo zer, baina esajerazioa izan da. Guretzat ohore bat da, baina behar bat ere bada gizarte eta kultura bezala, galtzen ari baita. Gaur egun, tabernetan-eta, euskarazko musika ez dute jartzen inon, reggaettoa entzuten da erabat, eta giro horretan, gu joko z kanpo gaude. Baina, hori horrela izanda ere, plazak funtzionatzen ari dira, eta hori oso pozgarria da.


Plazak guztiz galduko ziren beldur zinen, ala?

Beldur bakarrik ez, esango nuke galduta ere egon zirela eta azken urteotan berpiztu egin direla.

Noizko kontuez ari zara?

2000. urtearen inguruan, *bakailaoa*-k hartu zuen indarraren ondorioz, plazak asko jaitzi ziren, izugarri. *Guai* izateari utzi zioten, eta jartzen zenuen taldea jartzen zenuela ere, jendeak ez zuen erantzuten, plazara inor ez zen arrimatzen. Eta inor ez da, inor ez. Auzo txikietako festak galdu egin ziren; ez denak, baina jarraitu zutenek ere ez zuten lehengo indarririk, ezta gutxiagorik ere. Tristea eta gogorra, baina egia.

Eta berpiztea zer izan da, bat-batekoa?



Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxea, 2018ko martxoan ateratako argazki batean. Anaiak direla uste dute askok, baina ez dira.

UTZITAKOA

"TABERNETAN ERABAT REGGAETOIA ENTZUTEN DEN ARREN, PLAZAK FUNTZIONATZEN ARI DIRA"

"HUNKIGARRIA IZAN DA PLAZAK GAINEZKA IKUSTEA, ETA GAZTEAK ETA ZAHARRAK DENAK BATERA"

"DATARIK EZIN DUT EMAN, BAINA AURRERATU DEZAKET URTEA BUKATU AURRETIK JOKO DUGULA ORION"

Ez, pixkanaka joan da. Badira urte batzuk beste alderako joera antzematen hasi ginela, alegia, plazara jende gehixeago etortzen ari zela. 2010ean-edo hasiko ginen hori nabaritzen, eta pandemia hasi baino bospasei urte lehenagotik hona aldea oraindik eta nabarmenagoa izan da. Ikusten genuen gazteak berriz ere elkartzen hasita zeudela gauzak antolatzeko, festak-eta ilusioz eta gogoz prestatzen hasita zeudela, eta ez dago hori baino indar hoberik.

Zuen kontzertuetara doazen asko taldea bera baino dezente gazteagoak dira, eta, ziur asko, zenbait abestitan kantatzen dituzuen istorioak ezagutu ere ez dituzte egingo...

Posible da, baina gure kantak aitzakia ona izan daitezke azken hamarkadetan Euskal Herrian bizi izan duguna ezagutzeko. Itxura batera ematen du txorakeriak bakarrik esaten ditugula, baina ez da horrela. Ironia eta umorea erabiliz, baina kanta askotan gai oso serioez hitz egiten dugu. Beti busti izan gara, bustitzea gustatzen zaigulako. Niretzat musika da borrokarako tresna bat, eta beti motibatu izan nau gehiago esango dudanak eta nola esango dudanak, zer musika egingo dudanak baina.

Sekula izan duzue arazorik abestien letrengatik?

Arazorik ez, baina hasierako urteetan kritikak entzutea tokatu zitzaigun Ertzaintzaren kontra kantatzen genuelako edo "potrotaraino gaudela, jode" eta horrelakoak esateagatik. Batzuek ez zuten begi onez ikusten trikitixaren mundutik etorri eta hitz egiteko modu hori erabiltzea. Azken diskoan, berriz, grabatuta geneukan kanta bat ez genuen sartu. *Alde hemendik* izena du kantak eta diskoa atera genuenean, Altsasuko auzia bero-bero zegoen. Nik diskoan sartu egin nahi nuen, baina beste taldekide batzuk ondorioen beldur ziren, eta taldean liskarra ere izan genuen. Azkenean, diskotik kanpo utzi genuen; egunen batean aterako dugu. Horrez gain, beste abesti batzuen letra moldatu egin behar izan dugu, bazirelako genero ikuspegiaren aldetik egokiak ez zirenak. Idatzi genuenean ez geneukan ikuspegi hori, baina orain bai, eta ikasten eta eboluzionatzen goazen bezala, akatsak zuzentzen joan beharra dago.

Zeuk egiten al dituzu letrak?

Gehienak nik egiten ditut, bai. Bertsoak asko gustatzen zaizkit, betitik. Txikitan izan nahi nuen futbolaria edo bertsolaria, eta azkenean, trikitilari bukatu dut; baina horrek, nolabait, ematen dit bertsotarako aukera ere. Gero, benetako bertsolariekin ere lan asko egin izan dugu: Jon

Maiarekin, Xabier Sukiarekin, Ibai Esoainekin, Iñaki Gurrutzagarekin...

Esan duzunagatik, taldeak garai onak bizi ditu orain; baina hasierako urteak ere hala izango ziren, ezta?

Haiek ere onak izan ziren, bai, baina niretzat urterik onenak oraingo hauek dira.

Nola hasi zineten? Nola sortu zenuten Gozategi?

Ainhua eta ni ibiltzen ginen bikote gisa txapelketetan, eta tarteka erromeriak ere egiten genituen auzoetako festetan eta. Garai hartan, trikitixa irakasten nuen Arbizun (Nafarroa), eta Iñigo da Sakanakoa, Urdiangoa (Nafarroa). Egin Egun batean deskubritu nuen, Ortzki taldearekin jotzen ari zela. Nik txarangarekin ikusi nuen, baina baxua jotzen ere bazekien. Jaitsi zenean esan nion egun batean elkarrekin proba bat egin behar genuela. Berak bazuen nire aditzera, bazela oriotar bat Sakanan trikitixa irakasten ibiltzen zena. Baiezkoa eman zidan, eta halaxe, gelditu egin ginen. Erritmo kaxarekin eta trikitixarekin hasi ginen eta, bat-batean, sekulako konexioa sentitu genuen. Ainhua, Iñigo eta hirurok hasi ginen orduan, ordura arteko abestiak baxuarekin lagunduta jotzen aurrena, baina segituan etorri ziren kanta berriak; ordukoa da *Nor-Nori Nork*. Maketa bat grabatu genuen bederatzia abestirekin, eta izan zuen arrakasta ikusita, diskoa grabatzea proposatu zigun Elkarrek.

Eta gero etorri zen trikitixaren boom-a deiturikoa.

Hori da. Alaitz eta Maider, Maixa ta Ixiar, Etzakit... Gurea moduko talde pila bat, han eta hemen kontzertu mordoa, diskoak bata bestearen atzetik... Eromena izan zen, baina guk asko ikasi genuen eta trikitixarentzat ere garai onak izan ziren. Ordura arte trikitixa ikusita zegoen beste kategoria bateko musika tresna izango balitz bezala, besteen mailarik ez zuena, eta begira orain zenbat taldek erabiltzen duten. Protagonista izan ala ez, orain da musika tresna bat gehiago eta, gainera, geurea.

Hala ere, 30 urtean dena ez zen izango festa eta zoriona. Inoiz pentsatu al duzue Gozategi bukatzea?

Arreba eta Iñigo ezkondu egin ziren eta haurrak munduratzan hasi ziren, eta erabaki zuten 2006an disko bat atera eta taldea utzi egingo zutela. Nik segi egin nahi nuen. Ainhoak utzi egin zuen eta Iñigo zain zegoen, nirekin hasi behar zuen baxu jotzailea kanpoan zebilelako eta hura bueltatu bitartean ni bakarrik ez uztearren. Horretan ginela, 2007an, bigarren umea izan zuen, eta erditu eta hiru egunera, emaztea hil egin zen. Iñigo alargun geratu zen. Momentu latzak izan ziren, berarentzat batez ere, baina gainontzeko taldekideontzat ere

bai. Jarraitzea erabaki zuen, eta nik uste lagundu egin ziola. Musika talde bat gara, baina horrelako momentuetan, musika bigarren planora pasatzen da, eta taldea da inporta duena, elkar zaintzea. Hori da adibide bat. Gozategi denek jaiarekin eta alaitasunarekin lotzen duten arren, 30 urte hauetan tokatu zaigu momentu gogorrak pasatzea eta baita erabaki zailak hartzea ere.

30 urte hauetan Euskal Herria goitik behera ezagutzeko aukera izango zenuten.

Euskal Herriko herri guztietan izanak ginen, batean izan ezik: Getarian. 30 urtean ez dugu Getarian jo, eta aurten jo dugu. Nolatan ez dugun orain arte jo? Deitu ez digutelako. Hori bai, esan beharra daukat poz-pozik joan ginela, egundoko kontzertua izan zela eta arantza aterata gelditu dela.

Euskal Herrian ez ezik, kanpoan ibiltzeko aukera ere eman dizue Gozategik.

Katalunian asko ibili izan gara, Espainian ere bai, Argentinan lau aldiz izan gara, Uruguain, Belgikan, Finandian, Frantzia... Bidaia horiek ondo daude esperientzia bezala, baina ni neu gusturago etortzen naiz joaten naizena baino; nahigo dut hemen ibiltzea. Hala ere, aitortu behar dut oraintxe gustura egingo nukeela Kataluniara joan-etorri bat taldearekin; ez han emango genituzkeen kontzertuengatik, taldekoekin asteburu pasa egiteagatik baizik.

Kontatzeko moduko anekdotarik bai?

Behin, Kataluniara gindoazela, bateria jotzailea Lleidako atsedeneku batean ahaztuta utzi genuen. Ordu erdira akordatu ginen furgonetan falta zela, eta atzera haren bila joan behar izan genuen. Kurioso izaten da kontzertua eman behar dugun lekura nola iristen garen ere, taldekide bakoitza Euskal Herriko punta batetik. Beti izan da horrela, eta orain ere halaxe da. Adibidez, lehengoan Aginagan jo genuenean, nik etxea hamar minutura neukan, eta beste taldekide batzuek ordu eta erdira zeukaten. Eta noiz eta non entseatzen dugun galdetu aurretik, neuk esango dut: ez dugu entseatzen. Bakarrik entseatzen dugu kanta berriak egin eta diskoa grabatu behar dugunean, eta gero, kanta horiek zuzenekoetarako moldatu behar ditugunean.

Duela 30 urte eta orain modu berean bizi al dituzu kontzertu baten aurreko momentuak eta ondorengoak?

Orain egiten duguna da momentua gehiago dastatu etxetik ateratzen garetik etxera bueltatu arte, kontzientzeari garelako. Bestela, beti egin izan duguna da: joan, kontzertua eman, eta etxera. Arreba eta biok horrela hasi ginen, eta taldea utzi



Iñigo Goikoetxea, Ainhoa Gozategi eta Asier Gozategi, taldearen aurreneko urteetan. ANDER GILLENEA

zuenean ere horrela jarraitu genuen. Noizbait parrandan gelditu banaiz, izan da nire lagunak hara joan direlako; baina izan dira egunak nire lagunak han eta ni etxera bueltatu naizenak. Gero, nik nire parrandak egin ditut, baina aparte. Orain ere kontzertua bukatu eta geldituko gara trago bat edo bi hartzen, momentua dastatu egin behar delako, bertakoekin egon, zer sorrarazi dugun ikusi, gustura geratu diren ala ez jakin, baina gero, etxera. 30 urte irauteko zeozter ondo egin dugu, eta nik uste hori izan dela gauzetako bat. Zortea izan dut Iñigo oso zuzena delako. Pentsa, uztaile batean egin genituen 33 saio; egunak baino saio gehiago. Horri aurre egiteko ez dago edozein modutan ibiltzerik, zainduta ere ozta-ozta; bada, egunero parrandan ibili izan bagina...

Esan duzu urteekin ikasi duzula momentua dastatzen.

Pandemiaren ondorio izan al da hori?

Pandemiaren ondorioz are gehiago, baina lehenagotik ere bai; esango nuke taldera tronpetak sartu zirenetik edo, eta hori izan zen 2010ean. Egundoko zortea izan dut bi tronpeta jotzaileak Oriokoak izatea, Iñigo Perona eta Axi Sarasola. Kontzertuetara hirurok elkarrekin joaten gara autoan, auskalo zenbat ordu pasatu ditugun

errepidean, eta niretzat ohorea da joan-etorri horiek guztiak bi hauekin partekatzea. Ni baino 13 eta 20 urte gazteagoak dira, baina ez dago sinesterik zenbat ikasi dudana beraiekin.

Azken diskoa 2018an atera zenuen. Besterik ateratzeko asmorik ba al daukazue?

Kanta batzuk baditugu, baina diskoa ateratzeko beharrik ez. Gure publikoa ez dago kanta berrien zain, duela 20 eta 30 urteko kantak eskatzen dizkigute. Orduan, zertarako aterako ditugu berriak? Zortea daukagu orain arte sortu ditugun kanta asko oso ezagunak egin direlako, eta jendeak kanta horiek bere egin dituelako. Gu talde ezaguna gara, baina ez gara ezagunak aurpegiz. Iñigo eta Asier gutxik ezagutzen gaituzte; gure kantak, ordea, denek dakizkite, eta horiek entzun nahi dituzte. Momentuz, gure asmoa da ahal dugun bitartean kontzertuak ematen jarraitzea. Ez dakigu zenbat gehiagorako emango duen, baina dagoeneko hurrengo urterako sei emanaldi baditugu, eta ez da batere seinale txarra.

Eta Orion kontzertua noizko?

Data zehatzik ezin dut esan, baina aurreratu dezaket urtea bukatu aurretik izango dela. ■■■

Inazio Sarasua, inbentorea



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: J.M. PERONA ETA ESTANIS SARASUA

"Inazio Sarasuaren lanbidea: inbentatzea, asmakizunak". Horixe zen artikulua lehen izenburua. Bigarrenak hauxe zioen: "Uxoak, urtebete baino lehenago airean ibil litekeen plater hegalaria". Artikulua Eibarko Armagintza Eskolako aldizkarian (98. zenbakia) argitaratu zuten 1978ko udan. Inazio Sarasua Aldaz oriotarra zen artikuluko protagonista. Inaziok 47 urte zituen orduan. Idatzian garbi ageri da idazleak estimu handian zuela Orioko Sarasua (1929-2014).

Eta testuaren sarrera moduan, hauxe zetorren: "Bost metroko diametroa du, helikoptero bat baino errazago mugitzen da, merkeagoa da eta ez du automobil batek baino erregai gehiago behar. Uxoak 250 kilometroko abiadura har dezake eta leun-leun lur hartu; laguntza handia eman dezake mendiko erreskateetan".

Dron hitza askoz geroagokoa da. Inazio Sarasuaren asmakizunetik hainbat urtetara zabaldu da munduan. Baina bada dioenik Sarasua aurreratu egin zela, berak asmatu zuela drona 1976an.

Honakoak ere bazetozen aldizkari hartan Sarasuari buruz: "Inazio Orion jaio zen. Aita Estanis arrantzontzi baten armadorea zen; berrikuntzak egitearen aldekoa, teknika

berriak probatu eta hobekuntzak egitekoa, beti baporearen izenari eutsiz: *San Antonio*. Aitak nahi zuen semea arkitektoa izatea; baina Inazio, 7 urteko haurra zenetik, baporeko makinak nola muntatzen zituzten begira egoten zen gustura. Gaztetan Tiburtzio Arostegiren moilako tailerrean hasi zen lanean, zorionsua zen itsasora bidaltzen zutenean motor bat probatzera; orduan hasi zen lantzen nola hobetu makinaren errendimendua mekanismoak soilduz. Soldaduskan abiaziora joan zen boluntario, Logroñoko aerodromora, ikasteko gogoz; baina gaizki atera zitzaion, motorrak muntatu eta desmuntatzen jarri beharrean, instrukzio militarra egiten jarri baitzuten".

Sarasua bere lanean ezagutu zuten oriotarren artean, batzuek miretsi egiten zuten. Horietakoa da Juan Luis Amilibia ontzigilea: "Sarasuaz idazten hasita, liburu oso bat idatz liteke. Diotenez, txikitatik zen oso bizkorra, eskolako balkoitik botatzen zituzten paperezko abioiak ere, urrutiena harenak iristen ziren. Garaia baino lehenago jaio zen, azkarregi ibili zen, eta bere ingurukoek ezin izan zioten segitu eta lagundu. Berritzailea izan zen, eta horrelako jendearekin, herrian inbidia asko sortzen dira. Nik pena dut harekin denbora gutxiegi pasatu izana".

Inazio lehengusuarekin hizketan

Asmatzailearen lehengusu propio batekin egon gara hizketan, Inazio Sarasua Sarasolarekin. Biak arraunlari eta patroilari handiak izandako Inazio Sarasua Arrutiren ilobak, eta, gainera, haren besoetakoak. Garai hartan ia derrigorrezkoa zen mutil jaioberriari aitajaunaren izena ematea. Oraingo Inazio bere lehengusuaren ikasle, jarraitzaile eta mireslea da. Harekin hitz egin dugu, eta Jesus Mari Perona itsasontzi maketaglearekin, biekin, Inazioen asmakizunez.

"Ni 14 urtekin hasi nintzen lehengusuarekin lanean. Ondo ezagutu nuen. Marrazkilari ikaragarri ona zen, bai artistikoa eta baita lineala ere; erraztasun harrigarria zuen. Horixe esaten zuen Juan Jose Loidik, Orion izan den marrazkilari onenetakoa; Sarasua hobe zela bera baino. Eliza borobilaren proiektua marraztu zuen. Horixe aldarrikatzen zuen, elizak borobila behar zuela izan; apaiza herriarren erdian, eta ez haiekin bizkar emanda. Gaur egun, Errenteriko eta Lasarte-Oriako elizak borobilak dira, baina hark ideia hori bultzatu zuenean, artean ez zegoen horrelakorik".

Lehengusuak jarraitu du hizketan: "Patxi Danbolin zenarekin aritu zen lanean, biak batera Ur Lan tailerrean,

Mutiozabal ontziolaren ondoan. Gero, bakoitzak bere bidea hartu zuen. Inazio Arratolan jarri zen, eta oilategia zen barruti batean antolatu zuen tailerra. Hura lanean ari zela, nik 13 urte, eramaten nion ogitartekoa eskolako errekreoan, orduan sartu zitzaidan niri ere makinetarako grina. Orduan hasi zen, gero bitzta osoan amets eta helburu izan zuen motor borobilaren bidean, geroztik burutik kendu ezin zuen ideia gauzatzen eta, ikasi ahala, pixkanaka garatzen eta hobetzen".

'Maria Auxiliadora'

Asmakizun baten atzetik bestea datorkio burura: "Orduan etorri zen *Maria Auxiliadora* arrantzontzia. Inazioaren aita Estanis Orioko *San Antonio* baporean bazkideetako bat zen, eta halako batean erabaki zuen beren barkua behar zutela. Garai hartan (1961), ez zen erraza hemen ontziola bat lortzea horretarako, denak



Eskuinekoa da Inazio Sarasua, ezkerrekoa Pako anaia eta erdiko Inazio Sarasua lehengusua.



'Maria Auxiliadora' baporea, itsasoko pertsona mitologikoz inguratuta.




Kofradiako eskolako mutilak 'Maria Auxiliadora' nola eraikitzen ari ziren ikusten.



Eugenio Arbilla maisua ikasleei azalpenak ematen.



Sarasuatarren ospakizuna. Estanis da Inazioren aita.



'Sarasua' izeneko atunontziaren uretaratzea.

lanez gainezka zeuden eta; horregatik erabaki zuen Inaziok baporea berak egitea. Ontziaren kaskoaz gain, motorra ere berak egin nahi zuen. Hasi ere, hasi ginen. Halako batean, bi ikuskari etorri zitzaizkion bisitan. Galarazi egin zioten lana, norbaitek salatuta. Alor horretako enpresek indar handia dute, ez zaie komeni haien saretik kanpoko inork motorra egitea, are gutxiago hobe bada. Bermeoko tailer bateko motorra sartu behar izan zion. Dena ondo kalkulaturik zeukan. Uretaratu aurretik, hondarrez betetako zakuak ontziratut genituen. Marea bizietako itsasbeheran, zubipeko estazio aldeko bigarren matxoitik pasatu genuen baporea. Txopa aurrea; gero, zakuak brankan jarrita, berehala jaitsi zen; eta arazorik gabe gainditu zuen zegoela".

Bide horretan, beste hainbat asmakizun ere izan zituen, eta haietaz hizketan jarraitu du lehengusuak. "Tornu berezia asmatu zuen, piezak kurba eta guzti torneatzen zituena; sei pieza desberdin egiten zituen, makinan ezer aldatu beharrik gabe. Leuntzeko lisatzailea ere bai. 1992an, trainerua egin

zuen, gero Mallorcan transatlantikoa arraunean mugitu zuen hura, duela urte batzuk Orioko hondartzako errotondan egon zena. Baina Kortak ez zuen onartu; ez zuen behar bezala probatu ere egin. Esku pilotak egiteko makina ere moldatu zuen. Uste dut Eibar aldeko enpresa batek hartu ziola makina hura. Luis Segurola enpresari oriotarraren fabrika, zakuak automatikoki itxi eta lotzeko makina egin zuen. Aizpurua hondarzialearen dragaontziari helize birakaria jarri zion; ez lema, helizea, 360 graduko buelta egiten zuena, buelta osoa. Era horretan, barkuak bere ardatzaren inguruan egiten zuen bira, Orioko barran bertan, itsasora atera beharrik izan gabe, eta erraz egiten zion aurre korronteari, hondarra ateratzen segitzeko ontzia geldigeldi zegoela".

Gogoan du *Sarasua* atunontzia ere egin zuela, bere hitzetan, "sekulako berrikuntza" ekarri zuena: "Makina zurrupatzaile batek ontziratzen zituen arrainak barkuaren txopa aldetik, hura goitik behera ate baten moduan irekita. Ontziak bazituen akats batzuk neurrietan. Horixe falta

izan zitzaion Sarasuari: ondoan bere mailako teknikariak izatea, bere ideiak zehaztasun guztiz gauzatzeko beharrezkoak zituen ingeniariak. Alemanian jaio izan balitz! Baina euskaldunon artean ezinikusi handiak izan dira beti. Elduaien Hondarribiko armadorea eta atunontzietako patroia Huelvako ontziolara joan zen barkuaren ikuskapena egitera, eta hura konpondu eta bideratu ezinik ez zegoela erabaki zuen. Alferrik. Horretarako dirua behar zen, eta ez zen inondik atera".

Zarauzko hondartzan

Sarasua-ren atzetik, *Gure kezka* etorri zen, Zarauzko hondartzako txalet batean eraiki zuen barkua. "1969an hasi zuen, sistema berarekin. Arrantzarako hamabost gizon behar ziren baporean, zazpirekin moldatzea zuen erronka arrantzontzi mota hark. *Zerrautzas* izan zen proiektu haren mezenas, Arrillaga. Ni ere aritu nintzen barku haren lanetan. Bi ikuskari etorri zitzaizkigun. Esan ziguten gelditzeko, baimenik gabe ari ginela eta ezin zela hura egin, eta barkuaren piezen lagin batzuk Madrilera eramane behar

zituztela aztertzer. Arrillagak lortu zuen nolabait lanean segitzeko modua. Baina ikuskariek ezetz, barkuak ezin zuela han segitu, itsasoratu eta desegitera eraman behar zela. Presaka eta modu txarrean egin zen, eta barkua itsasoratu ezinik geratu zen hondartzan, handik nola atera ere asmatu ezinik".

Peronak hartu du hitza: "Uretaratzeko agindua eman zutenak ez ziren gauza horretarako, eta Inaziok berak asmatu zuen modua. Esan zuen inguruko bi baporerekin egingo zutela, baina altzairuzko kableak, lehen ur azpira zihoazenak, baliza batzuen gainean eramanda, ur azaletik joango zirela, horrela kablearen gaineko ur masa guztiaren pisua saihestuta. Horrelaxe lortu zuten hura handik ateratzea".

Bere garaiko jendeak, inguru honetakoak, ez zuen jakin Inazioren unibertsoa ulertzen. Beste maila bateko gizona zen hura. Orain urte gutxi, itsasontziak egiten dituen ingeniari batek esan zidan: "Sarasuak laguntza gehiago behar zuen, denborak arrazoia eman zion: bere atunontziari jarri nahi izan zizkion berrikuntzak gaur egun arrantzarako darabiltzaten aurrerapenak dira".

Inazio zenaren seme Estanisekin ere izan gara: "Gauzarik zailenak modu errazean konpontzeko eta

moldatzeko abildadea zuen. Horretan zen iaioa. Gaitasun handia zuen abstrakzioarako; ezer ez zegoen hartan, bere garunak, sormenak, aurrena imajinatu eta gero gauzatu egiten zuen. Herritar asko inguratu zitzaion zeukaten arazoarentzako konponbidea eskatzera".

Oteizaren eskultura

Tolosako plaza batean Oteizaren eskultura jarri zuten. Estanisek galdetu zion ea zer zen hura, eta "*puerta al universo*" (Atauts) erantzun zion Inaziok. Pintadaz josita zegoen; eta semea horretaz kexatuta, Inaziok: "Horrek ez du garrantzirik, artelanak berdin adierazten du adierazten duena, hura irakurtzen jakin behar da, interpretatzen". Behin, Miramar jauregiaren kanpoaldean, Txillidaren eskulturen erakusketa jarri zuten. Inazio, Estanis eta bere semea joan ziren hura ikustera. Estanisek eskatu zion aitari haurrari erakusteko eskulturek zuten esanahia, eta hark erantzun: "Hori ezin da erakutsi, begirada propioaren bidez interpretatu behar da".

Antonio Baylin Orioko praktikanteak esaten zuen Sarasua zela herriko pertsonarik argiena. Antoniorentzat belarriak garbitzeko aparailua asmatu zuen Inaziok. Luis Cisneros Orioko kofradiako maisuak ere estimu handian

zeukan Sarasua: "Inaziok buruko neuronak gurgiltxo bihurtzen zituen berehala, sekulako irudimena zeukan". Cisnerosek metafora horrekin adierazi zuen Sarasuak zeukan joera grinatsua gauzak sortzeko eta ideiak gorpuzteko. "Damutu ere egin zen bere sorkuntza batekin; atunontzi bat, lan gutxi eginda sekulako atun pila erraz harrapatzeko modua eskaintzen zuena. Denborarekin, kontzientzia ekologikoa hartu zuen, eta konturatu zen era horretako ontziekin arriskua zegoela itsasoa husteko". Luisek, Inazioren oroimenez, hark egindako hiru tresna ditu tailerlean gordeak. ■■■



Eibarko Armagintza eskolako aldizkarian argitara emandako artikulua.

"Aiarren ohiturak asko aldatu dira eta eragina izan du harategian"

MIKEL REZABAL HARAKINA

Mikel Rezabalek izen bereko harategiaren bueltan eraiki du bizimodua, azken 26 urtetan zehar. Irailaren 30ean, ordea, ia hiru hamarkada mostradore atzean igaro ondoren, bere negozioa behin betiko ixtea erabaki zuen, "egoerak hala berhatuta".

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Irailaren 30ean, harategiko azken lan egunean, eguerdi partean, KARKARA harategian izan zen Mikel Rezabalekin, Alkartasuna Kooperatibarekin batera, herriko denda bakarra izan dena, ixtearen arrazoiak ezagutzeko. Hasietatik, egun tristea zela aitortu zuen aiarrak, eta hainbat bezeroz nola agurtzen zen ere ikusi zuen kazetariak. Zorte ona opa zioten guztiek, eta urte hauetan guztietan bezero izateagatik eskerrak eman zizkien Rezabalek.

Zer dela eta erabaki duzu harategia ixtea?

Aspalditik ikusten genuen ezinean genbiltzala. Inguruko jatetxeak itxi egin dituzte eta horrek eragin handia izan zuen negozioan. Azkenaldian, gainera, asko garestitu da dena, argindarra eta harategian saltzen ditugun lehengaiak eta produktuak, eta prezioak igotzeko aukera gutxi genuen, erosleak ere justuan dabiltzanez, kexatu egiten zirelako. Hau kate bat da, azkenean. Urtez urte gure irabazi marjinak txikitzen joan dira, eta bizi ezina ikusten hasi ginenean, ixtea erabaki genuen, ez baikenuen hondoa jo arte aguantatu nahi. Horrez gain, azarotik aurrera, derrigorrez Ticket Bai sistema martxan jarri da negozioetan, eta horrek inbertsioa eskatzen zigun. Berez, Gabonen buelta hau izaten da etekinik handiena ateratzen dugun garaia, baina etekin hori

ateratzeko sistema berria martxan jarri behar genuen, eta ia 3.000 euroko inbertsioa egin horretarako. Ondorioz, bagenekien etekinik gabe geratuko ginela, eta horregatik erabaki dugu iraila bukaeran ixtea.

Mugimendu gutxi antzematen al duzu herrian?

Bai, urtarriletik San Ferminak pasa arte oso itzalita geratzen zaigu herria. Udalak ekitaldiak eta antolatzen ditu, baina horiek ostalaritzan izaten dute eragin handiena. Jatetxeak ere itxi egin dituzte, eta guk alderdi horretatik ez genuen irabazirik. Garai batean, desberdina zen, herriko jatetxeak hornitzen genituen eta parrillarako haragia eta hamaiketarako txorizo eta haragi egosiak saltzen genizkien; orain baino lan askoz gehiago egiten genuen.

Lana jaisteak, eskaintzan eraginik izaten al du?

Noski baietz. Jende gutxi etortzen bada, ohartzen zara mostradorean eskaintzen den haragia ilundu egiten dela, eta hori irteerarik ez duelako gertatzen da. Eguneroko kaxa egiten genuen txarkuteria, txistorrak eta fruta pixka bat salduta, baina hori ez da nahikoa hilabeteko gastuei aurre egiteko. Negozioa martxan izateko, gure soldatak kontutan hartu gabe, behar dituzu 2.000 euro inguru, zorionez lokala gurea delako, baina lan bolumen horrekin ozta-ozta ordaindu daitezkeke gastuak, eta ez da lortzen soldata duin bat.





Mikel Rezabal eta Agurtzane Garmendia.

Noizean behin, etortzen zitzaizkidan gazteak parrillarako zaharraren txuleta eskatzera, soziedadean afariren bat zutelako, eta ezezkoa esan behar izaten nien pena handiarekin. Izan ere, txuleta horiek astero ekarri eta irtenbiderik ez badute, alperrik galtzen dira eta horrek galera handia suposatzen du estu dabilen negozioarentzat.

Zaila izan al da erabakia hartzea?

Hilabete gogorak pasatu ditugu, eta buruari buelta asko eman dizkiogu. Nahigabe handia sortu digu egoerak, gure harategia eta ofizioa maite ditugulako; baina horrela ezin da aurrera egin. Errematea Ticket Bai sistema horrek eman zigun. Inbertsioa egin beharrean geunden, baina emazteari esan zion. 'Zertarako? Urtariletik aurrera berriz ere desesperatuta egoteko lan gutxi daukagulako. Hementxe bukatu da'.

Hasieran zalantzak genituen, baina bizitzak erakutsiko digu zer egin. Lanerako sasoiko gaude eta bi esku eta bi hanka baditugu. Oraindik gazteak gara; 46 urte bete ditut aurten eta erretiroa hartzeko 20 urte baino gehiago geratzen zaizkit oraindik. Horregatik, sentitu dugu aldaketa egiteko unea iritsi dela, eta ibilbide berria abiatzea erabaki dugu. Ez genion zentzurik hartzen negozioa errenka genuela beste hainbat urte iraun eta 50 urteak pasatutakoan aldaketa egiteari.

Zer asmo dituzu aurrerantzean?

Orain, lehen hilabete hauetan, baserriko lanei helduko diet. Ganadu mordoa dugu, eta saiatuko naiz alderdi hori hobetzen, etxeko diru sarrerarik

garrantzitsuena izan dadin. Hortik bizi ahal izateko aukera badugula ikusiko bagenu, horri helduko diot. Posible ez dela ikusten badugu, berriz, etxetik kanpo lana bilatzen saiatuko naiz. Esan didate sektorean esperientziadun harakinak falta direla, eta lan eskaintza batzuk ere izan ditut, baina, printzipioz, lehen esan dudan bezala, hilabete batzuetan atsedean hartuko dut, 30 urte daramatzadalako lanbide honi lotuta, ia jaiegunik gabe. Askok eskertu dizkiet lan aukerak, baina orain arnas pixka bat hartu nahi dut, harategiko lana oso lotua delako. Merkataritza ordutegiaz gain, etxeko produktuak

egiteko denbora ere behar izaten da, eta horrek familiarentzat oso denbora gutxi uzten du.

Familiarekin egoteko denbora hartu nahi al duzu?

Hiru seme-alaba ditugu, eta emazteak hazi ditu. Ezin izan diet apenas denborarik eskaini. Zortez, elkarrekin bazkaltzen dugu egunero eta harategira ere etortzen zaizkit, baina seme-alabekin egiten diren gauza asko ezin izan ditut egin: haurrekin denbora librea pasa, eskola kirolera eramane, Orioko igerilekura eramane. Umeari gustatzen zaizkion eta gurasoentzat garrantzitsuak diren jarduerak guzti horiek ezin izan ditut egin. Azkenean, bizitza bakarra bizi dugu, eta egoera honetan, gauzei balioa ematen ikasi dut.

Nola hartu dute bezeroek eta herritarrek harategia ixtea?

Betik bezeroek pena handia hartu dute, eta askok galdetu didate orain nora joan behar duten. Eguneroko bezero horiek eskerrak eman dizkigute hainbeste urtez herrian zerbitzua emateagatik.

Dena dela, bezero asko pasarakoak ditugu, inguruko herri eta auzoetatik etortzen direnak. Batzuk hilabetean behin etortzen dira, guk egiten ditugun txorizo, txistor eta odolkien bila. Hala ere, horrela zaila da negozioa aurrera ateratzea. Hemen behar dena da eguneroko mugimendua. Herriko zaharrak hiltzen joan diren heinean, gure eguneroko salmentak txikitu egin dira. Badirudi azken urteetan Aia handitu egin dela, baina handitu den bezala txikitzen ari dela uste dut nik. Inguruko herrietatik familiak etorri dira gurera bizitzera, ainguruko etxebizitzak merkeago daudelako

Aian, baina horietako askok euren jatorriko herrian egiten dute bizimodua. Eta berez aiarrak diren gazte askok ere herritik kanpo lan egiten dute eta gehienak enkarguak eginda etortzen dira etxera.

Ez zen erraza izango negoziaren gainbehera bizitzea.

Ez, noski. Azken hamarkadan bizimodua asko aldatu da herrian, eta horrekin batera aiarren ohiturak eta merkataritza eredua ere bai. Gurea bezalako denda txikiak ahaztuta geratu dira. Pena handia ematen dit egoerak. Jendea eta erakundeak ez dira konturatzen merkataritxiak ematen dugun zerbitzuaz, eta herriari ematen diogun bizitzaz. Dendek eta tabernek persiana jaisten badugu, herria ilun eta triste geratuko da, bizitzarik gabe, lotara etortzeko bakarrik balioko du. Hori al da herritarrek Aiarentzat nahi dutena? Ziur nago ezetz. Askotan, hartzen ditugun erabaki txikiek eragin handia izaten dute inguruan, eta hori gertatu da kasu honetan ere. Jendeak, erosoagoa dela iritzia, erosketak herritik kanpo egiteko ohitura hartu du, eta herriko zerbitzuan eragina du. Zerbitzua galtzen denean konturatzen dira

gertatutakoaz, baina atzera buelta oso zaila da, gaur egun horrelako negozio bat hutsetik hasteko diru asko behar delako, 300.000 eurotik gora esango nuke nik. Zein gaztek du horretarako aukera? Eta zertarako? Soldatatzeko bat irabazteko, aberasteko negoziarik ez baitago hemen.

Merkataritza gunek handiek egiten dituzten minaz gain, orain zenbait enpresa hornitzaile ere hasi dira, Gabonen inguruan, txuleta eta solomilloak-eta oso prezio baxuetan eskaintzen, eta etxera eramanda, gainera. Guk horiekin ezin dugu lehiatu, ezin dugu jeneroa prezio horietan eskaini.

Erakundeen aldetik laguntzaren bat faltan bota al duzu?

Nik ez dut niretzat laguntzarik nahi, lan eginda aterata nahi izan dudalako beti bizimodua aurrera. Baina erakundeen partetik merkataritza txikiarekiko konpromiso falta sumatu dut, baita herrian bertan ere. Erakundeek laguntza eskaintzen badute herritarrek herriko denda txikietan eros dezaten eta horretarako kanpaina serioak egiten badituzte, sektoreak aurrera egin dezake, bestela akabo. ■■■

ERREZITALDI MUTANTEA **Frankenstein agurgarria (Petti eta Ana Galarraga)**

azaroak 11, **OSTIRALA**, 20:00 Sutegi

NOAUA



BAKARRIZKETA **Magma Mia. Beatriz Egizabal**

azaroak 13, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

FILM EMANALDIA **Black is Beltza II. Ainhoa**

azaroak 18, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi

ANTZERKIA **Zeezertan dabil baina ez dakit zertan**

Metrokoadroka kolektiboa

azaroak 19, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi



Sarrerak: alde zuretik salgai usurbilkultura.eus plataforman.

Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauako egoitzan.

NOAUA/KO KULTURALDIA 2022 USURBIL AZAROA



Elkar lagunduz, korrika

KIROLA

**SONIA ZIANI****NESKEN ATLETISMO TALDEKO KIDEA**

- Ez dut uste animatuko direnik.
- Nik esango nuke baietz, mordoxka ikusten ditut beti korrika.
- Zuk badiozu...

Whatsappeko talde berria sortu da: "Kaixo, Orioko Atletismo Taldeko kideok pentsatu dugu neskentzako ate irekiak egitea korrikan ibiltzen zaretenontzat, edo hasi nahi duenarentzat". 1, 2, 3, 7, 9, 17, 24, 39, 46... Eskuetatik joan zaigu taldea... 62 pertsona. Bai, nondik atera dira 62 neska? Eta orain zer? Orain ezin dugu atzera egin.

Horiexek izan ziren nesken atletismo taldea sortzeko lehen urratsak. Elkarrizketa bat, sareetan zabaldutako mezua, eta herriko frontoia korrika egin nahi zuten neskez gainezka. Ez genuen espero halako harrerarik. Jakinmin handia airean, irribarre txikiak ezpainetan, eta beldurra ere agerikoa zen, baina ilusioa zegoen guztiaren gainetik.

Egunerokotasunari ilusioz heldu genion, bai heldu ere. Batzuentzat beraien lehen

kilometroak izan ziren, baina laster etorri ziren lehen irteerak: Lilatoia, Donostiako Klasikoa, Hiru Hondartzak lasterketa, Behobia-Donostia... Harriduraz, taldeko kide batzuek esaten zuten: "Ez nuen sekula pentsatuko hamar kilometro korrika egingo nituenik gelditu gabe, eta gaur, lehen aldiz, Behobia-Donostiako dortsala jartzear nago —20 kilometroko lasterketa da—". Gure arteko konplizitatea indarra hartzen joan da: bata besteari txaloka, animoak ematen.

Herrian zenbaitek esan izan digute gogorra izan behar duela taldeko azkena izateak. Baina, oker dabilta. Gure artean ez dugu hitz egiten lehenengoaz edo azkenekoaz, norberaren helburuak lortzeko elkar laguntzen duen neska taldea baikara. Behin dinamikan

"EZ GARA MUNDUKO KORRIKALARIRIK AZKARRENAK, BAINA TALDEKIDE ONENAK BIHURTU GARA"

sartuta, gehiago eskatzen dizu gorputzak, eta adrenalina horrek eramaten zaitu korrika egiteaz gain, osasuna ere zaintzera. Biak eskutik doaz. Probatu duenak badaki zertaz ari naizen. Izan ere, korrika egiteak zure bihotz jarduera indartzen du, energiaren betetzen zaitu, eta giharrak indartzen ditu. Hori gutxi balitz bezala, buruko osasunari ere laguntzen dio; izan ere, korrika egitean sortzen diren endorfinek gogo aldartea hobetzen dute. Probatu arte ez gara konturatzen ohitura aldaketa txiki batek zenbateraino alda dezakeen gure bizitza. Horretarako, ordea, ez da beharrezkoa 100 kilometro egitea, mugimenduan egotea baizik.

Gogoratu, ez gara munduko korrikalaririk azkarrenak, baina taldekide onenak bihurtu gara. Ez gara Olinpiar Jokoetara sailkatuko, edo agian bai, baina gure bizitzan aldaketa txiki hau eman nahi izan dugu. Eskerrik asko taldekide guztioi, zuek gabe ez litzatekeelako posible izango. Zuek gabe ez genukeelako ikasten ari garen guztia ikasiko. ■

IBER glass 

Kristalen konponketa eta aldaketa
Eguzki lamina ilunak
Errotulazioa
Seguruekin kontzertatuta
Txanda eskatzeko: 689 34 11 01



Estropalari, 12

 **LAIARAN**

Kuadrilentzako kamisetak, zapiak.....

No entiendo



TESTUA: JABIER ZABALETA

Gogoan dut, KARKARA aldizkaria sortu genuenean, tarteka etortzen zitzaigula bakarren bat kexatzera dena euskaraz zelako: "*Es que yo no entiendo*" esaten zigun haserre, pisuzko argumentu bat ematen ari zelakoan. Orduan nintzen gazte lotsagabeak "*¡Pues aprende!*" erantzuten zion, lasai arraio. Esan beharrik ez dago guk gurean segitu genuela, protestalari bakan haiei kasu handirik egin gabe, eta gaur egun inori ez zaio iruditzen KARKARA euskara hutsez izan behar ez duenik.

Hogeita hamar urte beranduago, hala ere, *noentientotar* gutxi batzuek segitzen dute aldiro beren ignorantziaren arrazoa erabiltzen besteok euskaraz egin ez dezagun eskatzeko — zehaztasun terminologiko bat, pertinentea: *noentientotarra* eta erdalduna ez dira, jakina, sinonimoak; jarrera jakin bat duena da *noentientotarra* eta ez, besterik gabe, euskaraz ez dakiena—. *Noentientotarra* ozen kexatuko da, esaterako, ekitaldi baten kartela euskaraz dagoelako, edo herritarrek bileretan eta Whatsapp taldeetan euskaraz egiten dutelako edo plazako pantaila digitaleko informazioa euskaraz dagoelako.

Zabaltzen ari den jarrera orokor baten erakusgarri da, zoritxarrez. Jende askok lelo haxe darabil, harro-tonto, bere mundualdia nabigatzeko: "Nik arazo bat daukat; zuk konpondu behar didazu".

Ume txikien kasketa da. *Noentientotarrak* zilegi du, jakina, euskararik ez jakitea — norberak markatzen ditu bere lehentasunak, eta hala izan bedi gero ere—, baina ez du eskubiderik bere ezjakintasunagatik besteoi euskaraz egiteko aukera mugatzeko.

Izan ere, oriotarrok euskaraz bizi nahi dugu, eta horrela erakusten dugu aukera dugun guztietan: Euskaraldian masiboki parte hartuz, Korrikan kaleak betez, gure haurrak euskaraz eskolatuz, tokiko prentsa euskalduna babestuz, ordezkari politiko euskaltzaleak aukeratuz... Horri esker,

**"GARAIA DUTE
ELKARBIZITZA
LINGUISTIKOAREN ALDE
BEREN ALETXOA
GEHITZEKO, GUK
BEZALA"**

aurrerapauso handiak eman ditugu azken hogeita hamar urteotan, eta ez gaude atzera egiteko. Areago, "salto bat aurrera" egin beharra planteatzen du herritar askorekin batera landu eta aurtengo martxoan udalak aho batez onartutako Euskara Planak.

Aurrera-salto hori egiten badugu —eta egingo dugu, bultzada badago-eta—, biharko Orio gaurkoa baino euskaldunago izango da eta herritar guztiek jakingo dute euskaraz, beste hizkuntza batzuek gain. Oriotar askok aspaldian eman genuen pausoa, eta txukun egiten dugu euskaraz eta gaztelaniaz behintzat. Guk egina dugu gure bide puska. Ondorioz, Orion gaztelaniaz bizitzea erabaki dutenek arazorik ez dute gurekin hitz egiteko, dena ulertzen diegu-eta. Nik euskaraz egiten badut, ordea, batzuek "*no entiendo*" esan eta haienera behartu nahi naute oraindik, azken hogeita hamar urteak alferrik pasatu balira bezala. Garaia dute herriko *noentientotarre*k ere espabilatzeko eta elkarbizitza linguistikoaren alde beren aletxo gehitzeko, elebidun bihurtuz gu bezala.

Gazte lotsagabe hark arrazoi, azkenean: "*¡Pues aprende!*". ■■■



Itzala

Zein da itzal zuzena?



Margotu

Zeinen ederki hosto artean jolasean! Zoriona erabatekoa izan dadin, eman iezaiozu kolorea irudiari. Erabili margo hori, laranja, berde, gorri eta marroiak.



Eskularru hauen artetik batek ez du parerik. Zein da?

Pareak bai!



ALdeak

Bi garo hauek elkarren ispilu direla ematen du baina badira diferentziak. 9 dira guztira.





Arrotza

Basoan naturalki aurkituko ez genituzkeen sei elementu daude irudi honetan. Ikusten al dituzu?


Hizki-Zopa

Zopa honetan, berriz, basoan naturalki aurkituko genituzkeen elementuak daude, irudian ere ageri dira eta 11 dira guztira.


Seiko Sudokua



Jakingo duzu beharbada, baina hosto eroriek osatzen duten geruza bigun horri ORBELA esaten zaio. Bete lauki zuriak hitz hori osatzen duten hizkien bidez (O, R, B, E, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zubate eta area bakoitzeko.



Dadtoa



Bederatzi dado hauetatik bost irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak?

Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.



Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Tel. 690 27 28 42.

Pisua partekatzeko prest nago, alokairu kontratua-ekin. Seriotasuna eskatzen dut. Tel. 666 62 22 51.

LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Tel. 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketara egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasanari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketara edo t-bernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Tel. 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailteik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

eta baita prestutasun osoa ere. Tel. 695 37 82 60 Estrella Reyes.

Emakume arduratsua naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak egiteko prest nago, baita adinekoak zaintzeko ere, egunez zein gauetz, barneko zein kanpoko langile bezala. Jatetxe batean ere lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia dut eta horretarako beharrezko titulua dut. Tel. 666 62 22 51.

Adineko pertsonak zaintzeko prest dagoen emakumea naiz, eta berehala lanean hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa dut, eta sei urteko esperientzia zaintza lanetan: jaten ematen, medikazioak, higiena, postura eta fardel aldaketa.... Orion bizi naiz eta paper guztiak legeztatuta ditut. Tel. 631 44 12 51. Neriz.

Orion bizi den emakumea naiz eta adinekoak zaintzen lan egin nahi nuke. Titulu soziosanitarioa dut, eta eskarmentu handia du adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen. Paper guztiak legez- tuta ditut eta berehala hasi naiteke lanean; prestu- tasun osoa dut. Tel. 631 01 72 28. Nerlin.

Emakumea orduka etxeko lanak egiteko edo adine- koak zaintzeko prest. Esperientzia handia dut zeregin horietan eta titulu soziosanitarioa daukat. Aurretik egindako lanen erreferentzia onak ditut. Tel. 612 57 03 45

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorrek salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokai- ruan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	09:44 eta 22:46	03:09 eta 16:03	☉
2	11:15	04:40 eta 17:33	☉
3	00:15 eta 12:32	06:06 eta 18:48	☉
4	01:19 eta 13:33	07:11 eta 19:44	☉
5	02:09 eta 14:22	08:02 eta 20:29	☉
6	02:51 eta 15:05	08:45 eta 21:09	☉
7	03:28 eta 15:43	09:25 eta 21:46	☉
8	04:02 eta 16:19	10:03 eta 22:20	☉
9	04:34 eta 16:54	10:41 eta 22:54	☉
10	05:06 eta 17:28	11:17 eta 23:28	☉
11	05:38 eta 18:02	11:54	☉
12	06:11 eta 18:37	00:02 eta 12:32	☉
13	06:47 eta 19:17	00:37 eta 13:12	☉
14	07:29 eta 20:04	01:16 eta 13:58	☉
15	08:22 eta 21:08	02:03 eta 14:56	☉
16	09:32 eta 22:30	03:06 eta 16:10	☉
17	10:54 eta 23:48	04:27 eta 17:28	☉
18	12:06	05:45 eta 18:31	☉
19	00:48 eta 13:02	06:45 eta 19:21	☉
20	01:34 eta 13:48	07:32 eta 20:02	☉
21	02:14 eta 14:29	08:13 eta 20:40	☉
22	02:52 eta 15:09	08:53 eta 21:17	☉
23	03:30 eta 15:49	09:33 eta 21:55	☉
24	04:09 eta 16:31	10:15 eta 22:36	☉
25	04:50 eta 17:15	10:58 eta 23:18	☉
26	05:34 eta 18:03	11:45	☉
27	06:23 eta 18:56	00:05 eta 12:36	☉
28	07:17 eta 19:55	00:56 eta 13:33	☉
29	08:20 eta 21:05	01:54 eta 14:37	☉
30	09:32 eta 22:25	03:01 eta 15:49	☉

FARMAZIAK-AZAROA

ZARAUTZ

3, 8 eta 14.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
19 eta 20.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
2, 9, 15, 16 eta 21.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
11, 23, 26 eta 27.	GAMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
12, 13, 17 eta 29.	IRIARTE: Zinkunegi, Piarroxo Enea / 943-13 29 70
1 eta 7.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
4, 10, 18, 24, 25 eta 30.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
22 eta 28.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
5 eta 6.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

AIA

AZAROAK 19, LARUNBATA

Kontzertua: Esti Markez.
Probalekuan, 22:30ean.

ORIO

AZAROAK 4, OSTIRALA

Bakarrizketa: *Magma Mia.*
Orioko Kultur Etxean, 19:30ean.

AZAROAK 5, LARUNBATA

Arraun Surf Jaialdia.
Herriko plazan, 10:00etan hasita.

AZAROAK 8, ASTEARTEA

Dokumental emanaldia: *Tipularen sehaska kanta.*
Orioko Kultur Etxean, 19:00etan.

AZAROAK 10, OSTEGUNA, MEMORIAREN EGUNA

Film emanaldia: *Maixabel.*
Orioko Kultur Etxean, 19:00etan.



SAN MARTIN JAIAK

Jaiak: Aiako Urdanetan eta Orioko Ortzaikan samartinak ospatuko dituzte. Azaroaren 11 izango da San Martin eguna, eta laster emango dute egitarauaren berri.

AZAROAK 11, OSTIRALA

Irakurketa saioa: Hannh Arendten *Indarkeriaz* liburuz.
Salatxo aretoan, 18:30ean.

Websaila eta solasaldia: *Belarri bero, bai esan?*
Orioko Kultur Etxean, 18:30ean.

AZAROAK 17, OSTEGUNA

Antzerki emanaldia: *Buah txabal!*
Orioko Kultur Etxean, 19:00etan.

AZAROAK 21, ASTELEHENA

Ipuin kontaketa saioa: Ines Bengoaren eskutik.
Orioko Kultur Etxean, 18:00etan.

AZAROAK 22, ASTEARTEA

Santa Zezilia Eguneko kalejira.
Kultur Etxetik herriko plazara, 17:00etan hasita.

Antzerki emanaldia: *Eta hik zer?*
Orioko Kultur Etxean, 19:00etan.

bertako
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari



GIPUZKOA

943 903 450

www.bertako.eus

Puntua jarrita

Bertsolaria: Amaia Iribar.
Doinua: *Bertso bat botaiozu zeure buruari.*

1
Hiru bat bertso xume nahi nituzke bota,
Karkaratik etorri
zaidanez erronka,
gairik gabe hasi dut
nere bertso-sorta
Karmeleri ahaztu
egin zitzaion ta.

2
Euskaraldia dugu
guztiok ahotan,
euskara hutsen gabiltza
denok egunotan,
baina urte osoan
jarraitzeko hortan,
segi beharko dugu
betiko borrokan.

3
Benito eta Oteizan
sorleku berbera,
euskaran babesleku
omen dugu bera,
baina buruan daukat
betiko galdera,
ez ote dugu gehitxo
entzuten erdera?

Hurrengo bertsolaria:
Ibai eta Uhaitz Munduate.
Puntua:
Bat eta bat ez da bi,
baizik eta biki.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Amaia Iribarri jarri dio puntua Karmele Olidenek: "Hiru bat bertso xume nahi nituzke bota". Hurrengoari ere jarri dio puntua.

EUS
KAL
RAL
DIA

NAIARA LARRAÑAGA

IZAN KA IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

KARKARA

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

